

# ARRASATE

## PRESS

Arrasate 1991ko Otsailak 1, 94. zenbakia


Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



**JON BELAR,**  
zeluloidea  
eta pintzelak

## Ohitura zaharrak berri

**Santa Agedako koruak**



## HOTZ-BERO

KLIMATIZAZIOA

Kanpantorpea 2, Tfnoak: 79 70 98 eta 79 67 54  
ARRASATE

- AIRE GIROTUA
- BEROKUNTZA
- ERAUZKETA  
(Estrazioak)
- ARAZKETAK
- MANTENUA



WORLDWIDE COURIER

HIRI ETA ESTATU

BARNEKO ETA NAZIOARTEKO

BIDALKETAK

ALBACETE, Batalla del Salado, 37. T. 967-22 75 53 - **Almansa**, Aniceto Coloma, 40. T. 967-34 58 58 - **ALICANTE**, C/A Fuentes de Alipark, loc. 3. T. 96-510 05 33 - **Alcoy**, Entenza, 46. T. 96-552 55 66 - **Benidorm**, Lepanto, loc. 30. T. 96-586 53 11 - **Elche**, Avd. Libertad, 123. T. 96-544 21 01 - **Elda-Petrel**, José Martínez González, 89. T. 5385 9 98 - **Torre Vieja**, Avd. Diego Ramirez, 223. Ecucenter. T. 96-571 73 91 - **ALMERIA**, Santa Isabel, 62. T. 951-25 09 88 - **El Ejido**, Alvaro Soto Mayor Gal. Clal. T. 951-48 36 13 - **Huerca Overa**, Crta. Nacional 340, Edif. Davinia, 2. T. 951-47 13 13 - **ANDORRA**, Carlemany, 105. T. 973-8-26300 - **AVILA**, Avd. de la Juventud, 6. T. 918-2112 67 - **BADAJOS**, Av. Juan Sebastián Elcano, 5 A. T. 924-25 50 51 - **Don Benito**, San Francisco, 30. T. 924-84 33 07 - **Mérida**, José María Pemán, 3. T. 924-31 94 49 - **PALMA DE MALLORCA**, Andrea Doria, 8. T. 971-23 21 41 - **Inca**, Edisson, 1. T. 971-50 37 11 - **Manacor**, Av. Salvador Juan, 86. T. 971-55 57 74 - **Ibiza**, España, 30. T. 971-30 16 00 - **Formentera**, Crta. Pujol, s/n. T. 971-32 24 18 - **Ciudadela**, Cami d'es Degollador, 87. T. 971-38 05 12 - **Mahón**, Av. Anselmo Clavé, 56. T. 971-35 05 12 - **BARCELONA**, Casanova, 79. T. 93-323 32 05 - **Receptorías Urbanas: Feria de Muestras**, Palacio de Congresos - **Boulevard Rosa**, Pº. de Gracia, 55-57 - **Centro "La Caixa"**, Diagonal, 635 - **Cristal**, Gran Vía, 1176 bis. - **Jonquera**, Jonquera, 2 - **Mercurio**, Vía Augusta, 59 - **Nervión**, Vía Layetana, 20 - **Windsor**, Vía Augusta, 2 - **Financia**, Pau Claris, 162-164 - **Pallars**, Pallars, 85-91 - **Colón**, Drassanes, 6-8 - **Mercabarna**, Esc. C Edificio Oficinas - **Hiperco**, Meridiana, 354 - **Padilla**, Padilla, 205 - **Carlos III**, Sabino de Arana, 32 bis. bjos. - **Badalona**, Marqués de Mont Roig, 126. T. 93-388 51 51 - **Barberá**, Pso. Moragas, 256. T. 93-718 36 52 - **Berga**, De la Sardana, 27. T. 93-874 12 98 - **Cornellá**, Crta. Sant Boi, 9. T. 93-377 22 00 - **Granollers**, José Umbert, 58. T. 93-870 06 12 - **Hospitalet**, Plza. Maestro Clavé, 6-8. T. 93-337 01 00 - **Igualada**, San Ferrán, 22. T. 93-804 24 11 - **Manresa**, Crta. Pont Vilomara, 17. T. 93-874 12 12 - **Mataró**, Rda. Antoni Comas, 24. T. 93-798 34 57 - **Mollet**, Cayetana Ventallo, 87. T. 93-570 47 52 - **Pineda**, Santiago Rusiñol, 11. T. 93-762 69 69 - **Polinyá**, Mayor, 5-7. T. 93-726 72 20 - **Premia**, De la Plaza, 36. T. 93-752 10 55 - **Rubí**, Avd. Catalunya, 4, Edif. Iris. T. 93-697 03 66 - **Sabadell**, Rosales, 18 - T. 93-726 43 77 - **S. Andrés B.**, Plza. Iglesia, 1. T. 93-653 24 51 - **Tarrasa**, Balmes, 19. T. 93-789 22 22 - **Vic**, Av. Martí Genís Aguilar, 25. T. 93-885 62 50 - **Villafraña**, Arbós, 14. T. 93-890 35 40 - **Villanueva**, Gornal, 13. T. 93-815 19 60 - **BILBAO**, General Eguía, 7 - T. 94-443 76 08 - **Receptorías Urbanas: Feria de Muestras**, Zona Servicios - **Cámara de Comercio**, Alameda Recalde, 50 - **Bermeo**, Reina Zubi, 17. T. 94-688 19 04 - **Durango**, Maspe, 10. T. 94-620 01 62 - **Guernica**, Bº. Txaparta, 3. T. 94-685 55 00 - **BURGOS**, Comuneros Castilla, 19. T. 947-23 66 11 - **Miranda**, Reyes Católicos, 14. T. 947-31, 06 04 - **CACERES**, Sta. Luisa Marillac, 16. T. 927-21 06 34 - **Plasencia**, Rda. Salvador, 71. T. 927-41 26 09 - **CADIZ**, Guadix, 3. T. 956-25 75 61 - **Algeciras**, Urb. Dña. Casilda, bloq. 10. T. 956-65 35 61 - **Ceuta**, Gral. Aranda, 10. T. 956-52 18 01 - **Jerez F.**, Pso. Delicias, 5. T. 956-34 01 11 - **LAS PALMAS**, San Diego de Alcalá, 12. T. 928-36 55 77 - **Fuerteventura**, Avd. 23 de Mayo, 3. T. 928-85 07 17 - **Lanzarote**, Avd. Mancomunidad, 4. T. 928-81 67 14 - **Playa del Inglés**, Centro Comercial Nilo, loc. 1030 - T. 928-76 66 53 - **TENERIFE**, Ramón y Cajal, 50. T. 922-28 34 54 - **CASTELLON**, Maestro Falla, 7. T. 964-22 87 99 - **Benicarló**, Del Pilar, 10. T. 964-47 47 79 - **Val de Uxó**, Plaza Villavieja, 6. T. 964-66 71 11 - **CIUDAD REAL**, Parque Residencial Rda., bl. 11. T. 926-25 24 66 - **Puertollano**, Pso. San Gregorio, 1 Bl. B. T. 926-43 00 50 - **Valdepeñas**, Amparo, 18. T. 926-32 17 32 - **CORDOBA**, Avd. Libia, s/n. T. 957-26 86 00 - **Lucena**, Hoya del Molino, 6. T. 957-59 13 71 - **Pozoblanco**, Dr. Antonio Cabrera, 8. T. 957-10 26 20 - **CORUÑA**, Primo de Rivera, 11. T. 981-24 45 33 - **Ferrol**, Perbes, 16. T. 981-32 02 00 - **Santiago C.**, Pasadizo Brión, 11. T. 981-56 22 55 - **Riveira**, Ramón y Cajal, s/n. T. 981-87 22 12 - **CUENCA**, Colón, 73 - T. 966-22 92 21 - **GERONA**, Andrés Tuye Santamaria, 10. T. 972-21 55 66 - **Figueras**, Verge Maria, 6. T. 972-50 27 66 - **Junquera**, Crta. Nacional 11, Km. 11. T. 972-54 05 05 - **Olot**, Pare Rocca, 8. T. 972-26 58 58 - **Palamós**, Iglesia de Sant Joan, 6. Tel 972-31 86 00 - **Puigcerdá**, Pla del Fort, 4. T. 972- 88 14 51 - **GRANADA**, Trucha, Edif. Victoria, 3. T. 958-29 34 38 - **GUADALAJARA**, Angel Ma. de Lera, 4. T. 911-21 58 16 - **HUELVA**, Fernando el Católico, 4. T. 955-25 70 12 - **Ayamonte**, Joaquín González Saez, s/n. T. 955-32 19 57 - **HUESCA**, Concllo de Ibañeta, 14. T. 976-49 96 61 - **JAEN**, Avd. Madrid, 25. T. 953-26 53 04 - **LEON**, Cipriano Huerga, 14. T. 987-21 15 11 - **Ponferrada**, Tras de la Bóveda, 12. T. 987-41 82 51 - **LERIDA**, Avd. de las Garrigas, 13. - T. 973-20 57 58 - **Tárrega**, Dr. Riu, 7. T. 973-31 30 68 - **Viella**, Av. Pas d'arro, 5. T. 973-20 57 58 - **LOGROÑO**, Jorge Vigón, 28. T. 941-25 79 66 - **Calahorra**, Bebricio, 41. T. 941-13 30 66 - **LUGO**, Amor Meilán, 14. T. 982-24 13 61 - **Foz**, Méndez Val, 8. T. 982-13 21 02 - **MADRID**, Ros de Olano, 7. T. 91-413 62 14 - **Receptorías Urbanas: Gran Vía**, Gran Vía, 67 - **Indubuilding**, Vía de los Poblados, 9y 11 - **Nº 3**, Sor Angela de la Cruz, 24 - **Nº 4**, Cedaceros, 9 - **La Caixa**, Pº. Castellana, 51 - **División Internacional**: Coslada, 15. T. 91-246 26 00 - **Alcobendas**, Pintor Velázquez, 10. T. 91-653 50 66 - **Arganda**, Crta. Valencia, Km. 25.8. Nave 38. T. 91-871 44 91 - **Majadahonda**, F. García Lorca, s/n. Urb. Delta. T. 91-638 78 97 - **Getafe**, Avd. Ciudades, 92. T. 91-681 14 14 - **Móstoles**, Castellón, 15. T. 91-617 64 63 - **San Fernando**, Sierra Albarracín, loc. 33. T. 91-656 21 13 - **MALAGA**, Urb. Santa Cristina, loc. 6. T. 952-34 07 00 - **Fuengirola**, Miguel Unamuno, s/n. L.3C. T. 952-46 30 00 - **Marbella**, Terrazas, P.3, loc. C. T. 952-82 61 61 - **Melilla**, Carlos de Arellano, 22. T. 952-68 38 47 - **Nerja**, Chaparil, s/n. T. 952-52 14 90 - **Ronda**, Villanueva, 21. T. 952-87 69 49 - **Torredelmar**, Urb. Pueblo Rocio, bloque 1. T. 952-54 05 84 - **MURCIA**, Pza. de las Balsas, 3. T. 968-21 00 31 - **Cartagena**, Licenciado Cascales, 10. T. 968-52 72 88 - **Lorca**, Avd. Juan Carlos I, Edif. Goya, T. 968-46 43 00 - **ORENSE**, Greco, 25. T. 988-24 34 00 - **OVIEDO**, López del Vallado, 7. T. 985-20 11 11 - **Avilés**, Llano Ponte, 56. T. 985-55 10 11 - **Gijón**, Perla, 9. T. 985-35 11 11 - **PALENCIA**, Los Robles, 24. T. 988-74 79 77 - **PAMPLONA**, Pedro I, 19. T. 948-27 70 11 - **Tudela**, Díaz Bravo, 1. T. 948-82 19 17 - **PONTEVEDRA**, Trav. V. C. Mercadillo, G. Venecia. T. 986-84 43 12 - **Lalín**, Corredoira, 40. T. 986-78 17 44 - **Vigo**, Couto Piñeiro, 6. T. 986-41 51 00 - **Vilagarcía**, San Roque, 15. T. 986-50 43 33 - **SALAMANCA**, Bolívar, 10. T. 923-23 14 62 - **Fuentes Oñoro**, Doctor Fleming, 28 A. T. 923-47 32 82 - **SAN SEBASTIAN**, Pso. Vizcaya, 17. T. 943-46 40 55 - **Azpeitia**, Polig. Ind., 35, Barrio Landeta. T. 943-81 54 08 - **Eibar**, Pso. Urquiza, 24. T. 943-12 09 50 - **Irún**, José Eguino, 14. T. 943-61 25 41 - **Mondragón**, Avd. Vizcaya, 16. T. 943-79 96 97 - **Tolosa**, Av. Alava, s/n. Bl. 2. T. 943-65 41 24 - **SANTANDER**, San Celestino, 11. T. 942-22 52 72 - **Torrelavega**, José Luis Hidalgo, 5. T. 942-89 74 16 - **SEGOVIA**, Av. Fdez. Ladreda, 28. G. C. Loc. 10. T. 911-44 00 55 - **SEVILLA**, Alejo Fernández, s/n. T. 954-42 05 11 - **Receptorías Urbanas: Sevilla-2**: Francisco Javier, 9 - **Torre de los Remedios**, Rep. Argentina, 24 - **Estepa**, Sevilla, 48. T. 954-42 00 08 - **SORIA**, Postas, 27. T. 975-22 60 96 - **TARRAGONA**, Mar, 19. T. 977-22 25 22 - **Amposta**, Mayor, 28. T. 977-70 52 04 - **Reus**, Roseta de Sales, 40. T. 977-34 54 54 - **TARASA**, Nova de Vall, 1. T. 977-44 67 13 - **Valls**, Sta. J. Vedruna, 7. T. 977-60 66 11 - **TERUEL**, Urb. La Guía, D. 8. T. 974-60 85 18 - **TOLEDO**, Avd. Sta. Bárbara, 10. T. 925-21 44 04 - **Talavera**, Aragón, 6. T. 925-80 02 87 - **VALENCIA**, Dr. Beltrán Bigorra, 7. T. 96-341 44 22 - **Receptorías Urbanas: Feria de Muestras**, Zona de Servicios-Zona Este y Oeste - **Alicia**, Plza. Sagrada Familia, 8. T. 96-241 99 04 - **Gandía**, Mayor, 44. T. 96-287 31 70 - **Játiva**, Escultor Esteve, 5. T. 96-227 23 34 - **Onteniente**, Dos de Mayo, 95. T. 96-238 80 62 - **Requena**, Plza. Janini, s/n. T. 96-230 24 69 - **Sagunto**, Los Huertos, 89. T. 96-266 59 89 - **VALLADOLID**, Málaga, 10. T. 983-39 23 44 - **VITORIA**, La Florida, 58. T. 945-28 57 00 - **Llodio**, Solocelai, s/n. T. 94-672 56 66 - **ZAMORA**, Arapiés, 26. T. 988-52 10 99 - **ZARAGOZA**, Miguel Servet, 128. T. 976-49 95 11.

• HIRI BARNEKO ZERBITZUA

\* Furgoneta zerbitzua (400 Kg.)

\* Furgoneta zerbitzua (1.200 Kg.)

• ESTATU BARNEKO ZERBITZUA

\* Gau eta egun

• NAZIOARTEKO ZERBITZUA

\* Courier zerbitzua

\* Aire-karga zerbitzua

\* Itzulpen zerbitzua

**ARRASATE**

Bizkaia Hirib. 16, Tfnoa; 79 96 97

**EIBAR**

Urkizu Pas. 24 B, Tfnoa: 12 09 50

**AZPEITIA**

Landeta Auz. z/g Tfnoa: 81 54 08

**DURANGO**

Maspe 10-B, Tfnoa: 94-620 01 62

**INFORMAZIOA**  
**900 300 400**



-ko kide



-ko kide

# ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

**Argitaratzailea:**

Arrasate Press taldea (AED)  
Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE.  
Tfnoa: 77 05 65

**Laguntzailea:**

Arrasateko Udala

**Zuzendaria:**

Joxe Aranzabal

**Erredakzioa:**

Beñardo Kortabarria. Arantzazu Loidi

**Publizitatea eta harpidetzak:**

Josune Biteri  
Tfnoa: 77 08 15

**Maketazioa:**

Goio Arana

**Erredakzio-kontseilua:**

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

**Kolaboratzaileak:**

Josemari Velez de Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan Martin Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz, Maite Toledo, Atalataikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta.

**Inprimategia:**

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

**Banaketa arduraduna:**

J. L. Arejolaleiba

**Copyright:**

ARRASATE PRESS

Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

## Esandakoak azpimarratuz

“A rrasate 5.000 urte barru” titulaturak arikuluaren bidez ez nuen, noski, inoren baitan errudun konplexurik sortu nahi izan. Norbaitzuk, gezurra dirudien arren, bide okerretik hartu zuten han esandakoa. Mindu egin zituen, nonbait. Korapilatsu xamarra daukagu gizartea, grinetako sutzarrera ezpal gehiago jaurtikitzen ibiltzeko. Ez; idazkietako eritziak -eritzi izateaz gain- papezkoak ere daitezke ... edo harkaitz sendotan jasotakoak. Espektra, beraz, zabala. Beude hor usteak eta gainerako guztia, hor konpon!

Arrasatek hamaika bider hamaika arazo ditu, hiri den aldetik. Eta horretan -ez dut uste- inor aburukide izango ez dudarik. Euskadiko hainbat lekutan gertatu den bezala, garapen azkarrak hondatu egin ditu herri txiki izatearen nolakotasunak. Itxura aldaketaren prozedurak abiadura garaia exijitu dio eguneroko joan-etorriari, eta hori nabaritu egiten da. Ezina zaigu iraganera itzultzea, txorakeria izango litzateke. Ipin gaitzen Garibai kaleko edozein puntutan eta beha diezaiozun inguruari: aldatu al da zerbait gure herriko gunea?

Etorkizuneko Arrasate eraikitzen

ari da egunero. Baina, kontuz!, bihar etziko etorkizuna gure aitona-amonon garaikoa baino exijenteago izango da eta oraintxe dugu aukera geure buruei zorrottasun pixkat gehiago eskatzeko. Arrasatek zor haundia dio industrializazioari; XX. mende honek mesede itzela egin dio gure historia txikiari, gizaldiaren hondarretan betiko mesianiko itsuen ez dakit zernolako kanta tragikoa erakutsi nahi ditugun arren.

Hastapen haietako industri mota beste koordenada batzuetatik abiatu zen eta, dudarik gabe, goldeak ildo berriak idekitzen jarraitu beharko du, hemen kokatuta dagoen herri honek zertatik bizitzen izan dezan. Historia eta kulturaren jabe izan den, den eta izan nahi duen Arrasatek asmatu beharko du uztartzen gaur eguneko teknologia eta tradizioa.

Arkitektura, azpiegitura... hitz batez, hirigintza, lehen lerroko gaia izan beharko dute gure agintariek, herria gero eta bizileku atseginago eta erosoago bilaka diezaguten. Edozein giza-kolektiboren ardatz nagusi den ekonomi planteamenduak guztiz aldakor izanik, hiri-diseinuari dago-kion optika ere halatsu izan behar. Neri horrela derizat, behintzat.

Josemari Velez de Mendizabal



enpresa  
bartzariak  
eta famili bilerak



**gili gili**

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

**HIRE**


Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

**Zubia**  
itzulpenak

- Itzulpen jurutuak
- Interpretariak

Tfnoa: 945 - 26 65 02 / 22 71 95  
GASTEIZ



**ETXE-  
-AUNDI**

Ostiraletan  
d a s t a t u  
g u r e  
m e n u  
b e r e z i a k

**3.500 pta. inguru**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56  
OÑATI

**Kaixo lagunok!**

Lagunok! Azkenetako Arrasate Press jaso eta irakurtzen ari nintzela 1934eko sozialisten asaldaketaz esaten dena aurkitu nuen. Zerbait argitu nayan, entzundakoak nahi nituzke zuei gogoraztea.

Beti entzun izan nuen sozialisten Buru García-España ari zela Arrasaten. Gaitzizenez "Pancorbo" zeritzan, Burgos alderditik etorria zelako. Honenbesteren jakinean egongo zaretela uste dut. Baina beste aitortza bat dakarkizuet orain. Hiru urtez joan nintzen Oñatitik Salas de Burebara igande arratsaldetan. Oñatin orduan Teologia ikasten ari nintzen, eta inguruko herrietan sakabanatzen ginen Katekesi eskolako neskato mutikoei irakastera. Hango Parroku jaun On Tomas Guilarte zen. Behin batez Madrildik etorri zen Salas de Burebara Guilarteren ezagun eta adiskide bat. Nire ustez, herritarra zen. Beti bezala parrokuaren "glorietan" geunden berrietan. Hartan, Madrildik etorritako horrek esan zigunez, Oresa Ricardo, orduan Justizi Ministraritzako idazkariorde zanaren, adiskidea zan. Hizketan, nik ez dakit, ni-neu arrasatearra nintzela-edo entzun zuenean, hau esan zigun: Ricardo Oresak esan omen zion, bere anaia Marcelino Oresa Burgosko batek erail omen zuen. Orain ez naiz gogoratzen Pancorbo aipatu zuenik, edo nik aipatu nuen izen hori. Burgosko batek Oresa erail zuela entzun ondoren, parroku jaunak neri begiratu zidan, eta arpegi ilunez esan zidan: "un burgalés..." Ez naiz gehiago gogoratzen, zehazkiagorik han gure artean esan zenik. Egun haietan, gertakari eta jazoera horiek oraindik bizi bizi zeudela, honela idatzi zidan On Joseba Markiegik Tournaira (Belgikara). Hona hemen ia osorik Markiegiren eskutitza.

*Gaizka Barandiaran*

Oharra: Gaizkak aipatzen duen eskutitz hau da joan den asteko Fotozahar sailean argitaratu genuena.

**"Usteak uste" dela-ta**

Joan den asteko alean R. Ugalde Joxe Aranzabalen "Usteak uste" zutabeaz aritu zitzaigun hemen. Eta gutun hura bizpahiru bider irakurri ondoren, uste dut -usteak uste- arazoaren adarretatik ibili dela R. Ugalde, kabreoak zeharkako bidetik eramanda edo.

Nire ustez, funtsezko arazoa hau da. Arrasate Press-en joera, oro har, aseptikoa izan da eta hau, nahi diren matizazioekin, inor gutxik jartzen du zalantzan dagoeneko. Kontestu horretan, "Usteak uste" zutabea izan da eritzizko atal bakarra, ze "Txandaka" k ez du alde horretatik joku handirik eman. Eta zutabea aldizkariaren zuzendariak sinatuta agertzeak nolabaiteko editoriale zentzua eman dio. Gauzak horrela, Joxek bertan emandako eritziek desorekatu egin dezakete aldizkariaren joera, hainbaten ustetan. Horixe litzateke aldizkariaren erroka berria: eritzi ezberdinei lekua aurkituaz berriro oreka bilatzea. Bide labankorra, agian, baina baita aberasgarria ere.

R. Ugalderen gutuna Enziklopedia Britanikoaren eta Azkueren Hiztegiaren adarretan geratzen da. Erasoaren kutsua nabaritu diot, iraindua sentitzen denaren eraso iraintsua iruditu zait. Pentsa daiteke R. Ugaldek Joxe Aranzabal erasotzeko arrazoiren bat bazuela, eta oraingo hau aitzakia besterik ez dela izan.

R. Ugaldek eskubide osoa du Joxe Aranzabalen eritziekin ados ez egoteko. Baita ezadostasun hori adierazteko eta eritzi ezberdinentzat lekua aldarrikatzeko. Baina horrelako gutun kabreatuak ez die bere arrazoiei mesede handirik egiten.

*M. Irizar*

**George Bush eta Saddam Hussein tontolapiko horie**

Idazten dizuet eskutitz hau munduko haurren izenean, mesedez Golko Per-tsikoko gerla bukatzeko. Nik pentsatzen dut modu asko dagoela arazo hau konpontzeko, eta ez gerla; pertsona zibilizatuak gara eta arazoak hitz egiten konpontzen dugu.

Gerrarekin herriak puskatzen dira, jendea etxerik gabe gelditzen da eta jende asko hiltzen da. Hau dena ez da beharrezkoa arazo hau konpontzeko.

Mesedez, bonbardeoak uzteko eta bizimodu normalera itzultzeko eskatzen dizuet.

Nire amak esaten duen bezala esango dizuet: dena batera ezin da lortu! eta mesedez bakoitza bere territorioan gelditzea eta duzuenarekin konformatzea eskatzen dizuet.

Hau ez da nire nahia bakarrik, munduko umeena baizik.

Hemen agurtzen naiz.

*Leire Viguri*

# Nola ikusiko zenuke beste partiduek HBri alkatetzak kentzea?



**Maider Idigoras**  
(Ikaslea)

Beno, ez dakit nolako eritzia izango duten, nik ez dakit asko gai horri buruz eta... eurek jakingo dute zer egin.



**Bingen Aiastui**  
(Montadorea)

Ez dut ondo ikusten. Azkenean roilo guztia berdina da: denak baten kontra jartzea.



**Jesus Zenigaonaindia**  
(Teknikaria)

Ez dakit ondo dagoen, baina nik uste dut euren ekintza nahiko logikoa dela daramaten bidarekin.




**Kristina Cid**  
(Umezaina)

Nik uste dut denek egon behar dutela, denek dutela eskubidea hor egoteko. Nik hala uste dut behintzat.

# LENIZ

## AUTO ESKOLA



**GIDA-BAIMEN GUZTIAK ZURE ESKU!**

**ARRASATE - ESKORATZA**

## Memesa

**79 42 22**

## KOPIOTXOA

*Fotokopiak*

*Planu-Erreproduzioak*

*Enkuadernazioak*

Zarugalde 28, Tfnoa: 79 17 82  
ARRASATE

olioak, **Artea**  
lientzoak,  
akuarelak eta  
eskulanak  
*Ferreras*

**JOSTEKO**  
  
**OIHALAK**  
Errekabarren 20,  
Tfnoa: 79 80 90 ARETXABALETA

## LORATEGI

**taberna**

Iturrlotz 7, Tfnoa: 79 04 67

## BEHARREZKO TELEFONOAK

### ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit. ....	79 53 00
Igualatorioa .....	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak) .....	79 39 00
(emakumeak) .....	79 44 11
Buru osasunerako zentrua .....	79 90 11

### GURUTZE GORRIA

Bergara .....	76 55 76
---------------	----------

### DYA

Antzuola .....	76 62 91
----------------	----------

### ANBULATORIOAK

Arrasate (Larrialdiak) .....	79 13 57
(Txanda hartzeko) .....	79 97 22
.....	79 97 33
.....	79 97 44
Oñati .....	78 08 52
Eskoriatza .....	79 98 58
Aretxabaleta .....	79 74 58
Aramaio .....	945 45 51 16

### ANBULANTZIAK

Gipuzkoako anbulantziak .....	45 87 44
-------------------------------	----------

### UDALTZAINGOA

Oñati .....	78 04 11
Bergara .....	76 14 69
Arrasate .....	79 14 39
Aretxabaleta .....	79 10 52
Eskoriatza .....	79 03 22

### ERTZAINZAK

Arrasate .....	79 71 99
----------------	----------

### SUHILTZAILEAK

Udal taldea .....	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile	
burua .....	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ..	78 28 00

### MATXURAK

Urak (udal zerbitzua) .....	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero) .....	79 05 81
Gasa .....	900 40 05 23
.....	79 78 44
.....	79 76 78

### GARRAIOAK


Taxiak .....	79 12 22
P.E.S.A. ....	79 14 19

### HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK

Iturbide Egoitza .....	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza .....	79 81 57

### KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garako Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak .....	79 87 77
KIUB-OMIC .....	79 51 55



## 1 OSTIRALA

• • •

- Zinea: Alai. "Eddie Homer", 7 eta 9.30etan.
- Novedades. "El cielo protector", 10.30etan.
- Amaia. "Amor loco", 10.30etan.
- Goardiako farmazia: -egunez: Azkoaga, Ferrerías.
- gaugez: Camacho, Bergara.

## 2 LARUNBATA

• • •

- Zinea: Alai. "La historia interminable II", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Novedades. "Cry Baby", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Aurkezpena: Arrasate Zientzi Elkarteak. Monterronen, 12.00etan.
- Antzerkia, Amaia antzokian "Baso miresgarria", arratsaldeko 6etan.
- Goardiako farmazia: -egunez: Español, Iturriotz.
- gaugez: Puy, Bergara.

## 3 IGANDEA

• • •

- Zinea: Alai. "La historia interminable II", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Novedades. "El cielo protector", 5, 7.30 eta 10.15etan.
- Goardiako farmazia: -egunez: Corcuera, Musakola.
- gaugez: Puy, Bergara.

## 4 ASTELEHENA

• • •

- Zinea: Alai. "La historia interminable II", 7 eta 9.30etan.
- Novedades: "El cielo protector", 7.30etan.
- Santa Agedako koruen ekitaldiak.
- Goardiako farmazia: -egunez: Irizar, Erguin.
- gaugez: Guallar, Bergara.

## 5 ASTEARTEA

• • •

- Zinea: Alai. "La historia interminable II", 7 eta 9.30etan.
- Goardiako farmazia: -egunez: Amezua, Santamaina.
- gaugez: Estella, Bergara.

## 6 ASTEAZKENA

• • •

- Goardiako farmazia: -egunez: Aurora Ruiz, Maala.
- gaugez: Mozos, Bergara.

## 7 OSTEAGUNA

• • •

- "Eskulan" ikastaroa, AED elkarteak, arratsaldeko 3etan.
- Goardiako farmazia: -egunez: Morales, San Andres.
- gaugez: Camacho, Bergara.

## Kirol Agenda

### RUGBYA

• • •

- Arrasate-Durango, Garagartzako zelaian, igandean goizeko 11.30etan.



### FUTBITOA

• • •

- Zaldibarko frontoian, larunbatean goiz eta arratsaldean, eta igande goizean txapelketako bigarren faseko futbito partidua.


### FUTBOLA

• • •

- Atxabalpen Arabako preferenteko futbol partidua, San Andres eta San Ignacio taldeen artean. Igandean, arratsaldeko 4retan.

## Erakusketa


Arrasateko Emakumeen Asanbladak Emakumeek egindako eskulanean erakusketa antolatu nahi du otsailaren azken asterako. Martxoaren 8an Emakumearen nazioarteko eguna dela eta burutu asmo den ekintza sortaren barruan, pintura, zeramika, makramea, eskultura, egur taila, larrugintza, tarazea, hiru dimentsiotako lanak, eta beste antzeko zerbaitean lan egiten duten emakumei dei egiten zaie erakusketan parte har dezaten.



Horretarako, otsailaren 19a baino lehen eraman behar dira lanak Emakumeen Asanbladak Grupo San Juanen duen lokalean, arratsaldeko 7etatik aurrera, edo asanbladako norbaiti eman. Animatu, badakigu egiten dituzula eta!

## Ikastaroak

AEDren emakume taldeak antolaturik, eskulan ikastaroa hasiko da otsailaren 7an. Datoren hilaren 7, 14, 21 eta 28an eta martxoaren 7, 14 eta 21 ean, Beatriz Arregi irakaslearen eskutik, hiru dimentsiotako koadroak, tarazea, larru lanketa etab. ikasteko modua izango da, arratsaldeko 3etan. Matrikula 300 pta kostako da. Izenematea lehenbailen egin AEDn bertan edo 79 54 46 telefonora deituta.



## ERAKUSKETA

### Pedro Bernardo Villarreal de Berriz

Erakusketa hau Bilbon dagoen arren, interesgarria iruditzen zaigu orrialde honetara ekartzea, Pedro Bernardo Villarreal de Berriz mondragoetarra izateaz gain, erakusketak ere merezi duelako.

XVII eta XVIII. mendeetan bizi izan zen jaunbiko eskolatua izan zen Pedro Bernardo. Geroago etorriko ziren Azkoitiko Zaiduntxoak eta Euskal Herriko ilustrazioaren aintzindari ezezaguna gehienontzat gaur egun. Hari buruzko informazio gehiagorako 10. orrialdeko Txandaka irakur dezakezue.

Bizkaiko Diputazioak lan eskerga egin du Bilbon antolatu duen erakusketa monografiko hau egiteko. Bertan Pedro Bernardoren jatorria, familia, garaiko giro intelektuala, eskuizkribuak, egindako injinerutza lanen plano eta argazkiak, koadroak, zientzi tresnak etab. erakusten dira 400 metro koadrotan zehar. Girotzeko, injineru mondragoetarrari buruzko erreportaiak bideoan eta ikus-entzunezko ikuskizun zoragarria.

Arrasateko ikastola eta eskolentzako aukera paregabea. Erakusketa Foru Artxibategiko Erakustaretoan dago, Maria Diaz de Haro kaleko 11n, Sagrado Corazonetik oso hurbil. Otsailaren 20ra arte zabalik. Lanegunetan 10etatik 13etara eta 16etatik 21etara. Larunbat arratsaldeetan eta igandeeetan ixita.

## Lehiaketak

lhauterietako maskara lehiaketa antolatu du Ofiatiko Laixan elkarteak, Udalaren laguntzaz. Hiru maila berezituko dira, adinaren arabera: 10-14 urte, 15-18 eta 19 urtetik aurrera. Epaitzerako orduan kontuan edukiko direnak: maskararen egitura, margoketa, irudimena eta originaltasuna. Lehiaketara



aurkeztu nahi direnak, otsailaren 9an entregatu behar dira

lanak, goizeko 10etatik 12etara kultur etxean, eta 10ean erakusketa egingo da goizez herriko plazan. Arratsaldean egingo dira sari banaketa eta maskaren subasta.

## Antzerkia

### Baso Miresgarria

Otsailaren 2an, larunbatez, Baso Miresgarria entzezlan eskainiko du Gasteiz antzerki taldeak. Umeentzako bereziki eskainia izango da antzerki saio hau, eta sarrera 200 ptan ezarri dute. Larunbatean, arratsaldeko 6etan Amaia antzokian ikusi ahal izango da.

## Aurkezpena

Larunbat eguerdian, Monterron Jauregian Arrasate Zientzia Elkartearen aurkezpen ofiziala egingo da. Elkarre horren helburua Arrasate eta bere inguruar loturiko ikerketa zientifikoak burutzea izango litzateke. Helburu didaktikoa izango duen elkarte horrek ez du dirubiderik bilatzen, eta Jose Angel Barriabengoa izango du lehen-dakari.

## Maskarada

Oñatiko Laixan elkarteak igandean Atharratzen izango den maskararako autobusak antolatuko ditu. Irteera igande goizeko 7.30etan izango da, eta buelta berriz iluntze aldera.. Bidaia 1.200 pta kostako da (langabetu eta gaztetxoentzat erdiprezioan) eta bidean Maskaradari buruzko argibideak emango dira, idatziz eta ahoz. Atharratzera Laixan taldearekin joan nahi duenak Kultur Etxean eman beharko du ize-naren berri.

“ Jokin Zaitegi Guatemalara iritsi bezain pronto, lehen arazoak sortzen hasi ziren. Aduanan, exilioan zegoen Euskal Gobernuak emandako pasaporterekin aurkeztu zen. Guatemala eta Espainiako agintariek, bidaltzearekin mehatxatuz, espainiar pasaportea ezinbestekoa zela adierazi zioten, berak euskalduna zela erantzuten zuen bitartean. Gaia nazioko presidentearen mahairaino iritsi zen, Jorge Ubico diktadorearen mahairaino, honek euskaldunari Guatemalan gelditzea utzi ziolarik”.

(Gorka Aulestia, EHUko irakasleak DV egunkarian)

“ Kasu honetan, haltza, ikasle eta irakasle baten artean sortzen den harremana da. Baina ez da ikasle-irakasle erlazio arrunta, amodiozkoa baizik. Itogarria zaien herritik alde egin, eta hirira, anonimatoaren askatasunaren bila eramango dituen amodiozko istorioa. Baina zergatik identifikatu haltza eta bere bihotzik eza, amodiozko istorio honekin? Bada, bien arteko erlazioa homosexuala delako”.

(...) “Haltzak bihotzik ez duenik ezin esan daitekeela aldarrikatzen duen sentsibilitate bereziz eta erreflexio sakonez egindako amodiozko istorioa da eleberri hau.

Hizkuntzaren aldetik, gozagarria da euskararen erabilera aberats, sakon eta landua”.

(I. Iraetak “Haltzak badu bihotzik” liburuari buruz HABE aldizkarian)

**Zertan da eskatutako Lehen Instantziako Epaitegiaren auzia?**

Jendeak uler dezan, hoberena hasieratik ekitea izango dela uste dut. Lehen, Arrasate, barruti epaitegia zen. 1988aren abenduan atera zen lege batek, mota horretako epaitegien desagerpena agintzen zuen. Justizi Ministeritzak bi gauza egin zuen barruti epaitegiekin: batzuk lehen instantziakoak bihurtu, eta besteak bake-epaitegi. Azken hau, Arrasateko kasua izan zen. Horrela, lehen Arrasaten bertan tramitatzen ziren hainbat gauza, ordutik aurrera Bergaran egin behar ziren. Nolabait, kategoria jaitea izan zen.

Erabaki horren aurrean, 1989ko abenduan, Udal Pleoak, Ministeritzari eskaria egiteko akordioa onartu zuen, Arrasaten Lehen Instantziako Epaitegia ezar zezan. Eskaria egiteko, Deba Garaian Arrasatek duen garrantzia aipatzen zen, biztanlegoa aipatuz, Deba Garaiko Udal Elkarteko buru dela esanez, industri datuak emanez... Bergarako Lehen Instantziako Epaitegian tramitatzen ziren kasuetatik portzentaia handiena Arrasatekoei zegokielako azpimarratzen zen bereziki.

Ministeritzak ez dio erantzunik eman eskakizunari, eta ondorioz errekurtsioa ireki da Entzutegi Nazionalan, hasierako erabakia atzera bota dezaten. Errekurtsioa, tramitera 1990ko otsailean sartu zen eta orain epaileak zer erabakiko duen zain gaude. Gure abokatuek diotenez, zaila izango omen da errekurtsioa aurrera ateratzea, baina esperantzak ere badaude. Gainera, kontuan hartu behar da Bergaran, Lehen Instantziako beste areto bat ireki dutela.

*Iñaki Txintxurreta,  
Udal Idazkaria.*



*Mondragonesa Grafikagintza*

**Paperdenda. Mahaigaineko tresnak**

Olarte 10, Tfnoa: 79 12 63

**EPELDE**

*argazki denda*

**Iturriotz 24**

**Lore** *lurrindegia*

Olarte kalea 10. Tfnoa: 79 14 99 ARRASATE

*Hilbera*  
**kafetegia**

Uribarri Etorbidea  
ARRASATE



## Elgeta

• Eskola berria eraikitze-ko oinarrizko proiektua eginda dago eta baita Jaur-laritzan aurkeztua. Proiektu horren arabera, eskola Maalan eraikiko litzateke, 2.500 m<sup>2</sup> izango lituzke, hiru solairurekin, eta gutxi gora behera 200 milioiko kostoa izango luke.

• 54 etxebizitza egiteko asmoa dago Elgetan, baina asmo horren aurrean diru-arazoa sortu da, etxebizitzak eraikitzea pentsatu den lurren jabeek eskatzen duten diru-gatik. Elgetako Alkateak zioenez, lurren jabeek eskatzen dutenaren artean, eta etxeak erosi nahi dituztenen arteko eskaintzaren diferentzia %40koa da.

## Oñati

• Udalak pertsona bat kontratatuko du, herriko irratian erredaktore-lokutore lanpostua bete dezan. Eskarientzat epea, otsailaren 15ean bukatzen da eta Kazetaritza edo Euskal Filologia edukitzea eskatzen da.



## Bergara

• Joan den astelehenean, Udal Plenoak ahobatez, Gipuzkoako Botikarien Elkarteari goardiako farmazien zerbitzua, lehen zegoenetan uzteko eskatzea onartu zuen. Udal Plenoko akordioaz gain, esatekoa da eskaera bera eginez kalean ia 2.500 sinadura bildu direla.

• KIUB-ek antolatuturik, gaurtik hasi eta martxoaren 8a arte auto azterketa dohainik egiteko aukera izango dute bergararrek. Dohaineko azterketa "La Vergaresa" zeneko eraikuntzan egingo da, eta aurrez zita egin beharko da. Ordutegia: goizeko 10etatik 1etara, eta arratsaldeko 3.30etatik 6.30etara.

• EAJ, EA, EE eta PSOE alderdiek joan den asteko Plenora, alkatearen dimisioa eskatuz eraman zuten mozioa ez zen tratatua izan, Jose Luis Elkorok alkateak gezurtzat jotzuelako mozioak beraren aurka jaurtikitzen zituen salaketak.

• Jose Luis Elkorok HBtik, eta Imanol Bolinaga EAJtik datozen lau urteetan senatore izango dira Madrilén. Horietaz gain, beste bergarar bat, Mari Karmen Gallastegi, EAkoa, Ekonomia sailburu izendatu berri dute.

## Gatzaga

• Gatzagako alde zaharra berreraikitze proiektua eginda dago dagoeneko. Lanak noiz hasiko diren ez dago jakiterik, baina erabili beharreko diru kopurua handia izango da, 200 milioi inguru. Diru hori, Eusko Jaur-laritzak, Foru Aldundiak, eta Gatzagako Udalaren artean ordainduko dute. Diru kopurutan Gasteizko Gobernuak 45 milioi ordainduko lituzke, Gatzagako Udalak 23 milioi inguru, eta gainontzeko 135 milioiak Foru Aldundiaren kontura joango liriteke.



# AUSTIN ROVER



## AUTO SAN ANDRES



**IBILGAILU-MOTA GUZTIETAKO KONPONKETA ELEKTRIKOA**

Araba Etorbidea 5, Tfnoa: 79 95 22 ARRASATE

□ **Gerraren aurka**

Golkoko Gerraren aurkako ekintzen barruan burututako borroka egunak erantzun zabala izan zuen. Eskola Politekniko eta Institutuko ikasleek eta Erguin, Musakola eta San Andres Eskola publikoetako irakasleek greba egin zuten. Lantegietan, berriz, 2 orduko geldialdia egin zuten honako enpresa hauetan: Fagor Elektronika, Klima eta Udaletxea. Guposten ia langile denek, Aranzabalen %35, SEATen %50, UCEMen %30 eta Gamein %30ak. Egurdiko manifestaldian mila ikasle baino gehiagok parte hartu zuten eta 300 lagunek arratsaldekoan.

□ **Jubilatuen kuotak**

Arrasateko Jubilatuen lau etxeek (Erguin, Abaroa, Toki Argi eta Musakola) otsailean kobratuko dituzte jubilatuen urteko kuotak. Karnetak ere otsaila guztian zehar berriztuko dira. Bakoitzak bere elkartean eguneratu behar du txartela eta kuota ordaindu.

□ **Farmaziak**

Gipuzkoako Farmazien elkarteak berraztertu egingo du Arrasate eta Bergarako goardiako botikekin egin asmo den eskualdetzea. Arrasate eta Bergarako Udalek aurkeztutako errekurtsioen ondoren hartu dute erabaki hori. Erabakia hartzerakoan ez omen zuten kontuan hartu kooperatibetako langileak gehiengoa direnez, aseguru berezia izaki, ez dutela anbulategira joaterik izango.

□ **Drogomenpekotasuna**

361.000 pta. agindu dizkio Arrasateko Udalak drogomenpekotasunaren sensibilizazio programari. Bestalde publizitateari buruzko unitate didaktikoa aurrera eramango da, 336.000 pta.ko aurrekontuaz.

# Txandaka

## ARRASATEAR BATI OMENALDIA

Pedro Bernardo Villarreal de Berriz mondragoe-tar ospetsuaren bizitza eta obrari buruzko erakusketa garrantzitsu bat irekitzeak, Bilbon joan den hilaren 19an eta ondoren Madrilera eramango dena, ilustrazio aurreko garaian hain garrantzitsu izan zen pertsonaia honen izen handia, bere jaioterrian ezezagun samarra, zabaltzea eragin du.



**Jose Maria Uranga (\*)**

Real Sociedad Vascongada de Amigos del País delakoaren sortzailetakoa izan zen arrasatearra.

Uribarri auzoan jaio zen, eta 1669ko maiatzaren 26an bataiatu zuten. Pedro Villarreal Ganboa eta Berrizen eta Maria Saez de Andianoren (Mateo Aranguren, Montterongo lehen kontearen, alarguna bigarrenez ezkonduaren) semea zen.

18 urte bete arte familiako burniola batean lan egin zuen eta injinerutza eta arkitektura ikasketak egin zituen gero Bergara, Iruñea eta Salamancan, Madril-en finkatuz.

Mariana Rosa de Bengolearekin ezkondu zen 25 urte zituela eta Lekeitioko Uriartera joan zen bizitzera, eta han hil zen 1740ko maiatzaren 19an. Emaztearen errota eta burniolez arduratu zen, bere negozioak zabaltzeko oinarritzko laguntza izan zirelarik. Bere ezagupen teknikoak sakontzeko, beste batzuk ere sortu eta zuzendu zituen.

Olagizonek uraren indarrez mugitzen ziren errotoak erabiltzen jakin izan zuten, guzti horrek gure herrien aintzi-

nako bilakaera industrialean izan zuen eraginarekin. Are eta gehiago argi-indarra aurkitu eta hura ateratzeko errotoak erabiltzen hasi zirenean.

Bere seme zaharrena, Ignacio, Montterongo kontearen alabarekin ezkondu zen eta beranduago konte bihurtu.

Santiagoko abitua hartu zuen 1691an.

Matematika, fisika mekanika hidraulikoa eta astronomia landu zituen, eta Espainiako zein atzerriko beste zientzilarik askorekin jakintzak trukatu zituen, trukatzeko arazoetuen kluba sortuaz. Geometriaz, spheraz eta trigonometriaz idatzi zuen, eta nabigazioa irakatsi zuen, bere obrarik ezagunen artean *Máquinas hidráulicas de molinos y herrerías y gobierno de los árboles y montes de Vizcaya* (Madril 1736) aipatu behar da. Liburu horrek garrantzi handia izan zuen gure herriko garai hartako teknologiaren promozioan, bertan zehaztu eta arrazoitu bait zen lehen aldiz gure erreka eta urak bideratu eta probetxatzen geroago garrantzia handia izan duen egitura hidrauliko mota. Kontraindarreko presetan oinarritzen zen sistema; gure pertsonaia gaur egungo aurrerapenaren aitzindari dugu, beraz.

Hil zenean, mila liburutik gora eta bere bizitza guztian zehar batutako hainbat tresna zientifiko utzi zituen.

Ez legoke gaizki gure kultur erakundeek erakusketa hori Arrasatera ekartzeko bideak egitea.

(\*) *Idazlea*

# KiDE

## Paperdenda eta jostailudenda

Erguin 5, Tfnoa: 79 25 77 ARRASATE

# LILURA

zeure moda  
diseinatu eta sortzen  
laguntzen dizu

Zerkaosteta 5, behea.  
Tfnoa: 79 89 72 ARRASATE



Jarlekuak ere gutxitu egingo dira

# Usteak uste

**H**abemus Jaurlaritza. Hiru hilabetez hara eta hona, honekin eta harekin negoziatzen ibili ondoren, badugu Jaurlaritza. Badakigu nortzuk osatua: EAJ, EA eta EE. Diren guztiak ez daude, baina daudenak abertzale badirela esan behar. Ez da denen gustokoa izango, baina berrikuntza interesgarria da, formula horrekin inoiz ez bait da aurretiaz gobernatu.

Egia esan behar badut, azken ordura arte PSOEek segituko zuela uste nuen, baina ez da horrela izan. Benetan zerk bultzatu dituen sozialistak Jaurlaritzatik kanpo geratzera ez dakit. Akaso oposizioan egonda botu gehiago irabaz lezakete, baina azken lau urteetan gobernuan egoteak eman dizkien legitimazio eta inplantazioa bertan behera gelditu daitezke, PSOE indar isolatua bihurtuz. Ezkerrarentzako prestatua zuen etxe amankomun entzuteisu hori ere ikusi egin behar zertan gelditzen den Euskal Elkarte Autonomoan behintzat, agintean egoteko aukera lurrundu zaienez gero. Guzti horregatik PSOEek kalkulu txarra egin duen irudipena dut.

Joanak joan, guri interesatzen zaiguna orain hauxe da, ea Gasteizen ezarri den gobernu-koalizioa Arrasaten eta gainerako udaletxeetan gauzatzeko asmorik dagoen, botuemailearentzat interesgarria izango zaiolako ea hauteskondeetan irtendako gehiengo eta gutxiengo naturalak errespetatuko diren ala koalizioen jokoa nagusituko zaigun.

*Joxe Aranzabal*

## Amaiako proiektua aztertua

### 130 milioi Mendizabal arkitektoak idatzitakoak

Aste honetan aztertu du Udaleko Hirigintza Batzordeak Amaia antzokiaren berritze lanetarako Andoni Mendizabal arkitektoak aurkeztutako proiektua. Oraindik xehetasun larregirik ezagutzen ez den arren, aurrekontuaren aldetik 130 milioi inguru kostako da berregokitze lana, eta Gipuzkoako Foru Diputazioak herrialde honetako antzokien artean osatua duen sarean sartu ahal izan dadin lanei ekitea beharrezkotzat jotzen dutelako gomendatu zen, bere garain, lanei ekitea. Izan ere, oraingo lokalak ez ditu betetzen Diputazioak ezarritako baldintzak, segurtasuna, soinua eta antzeko beste puntu batzuei dagokienez.

Burutu beharreko lanen artean agertokiaren berritze eta handitzea ageri dira, eta horrekin batera aretoaren argitaria eta soinu baldintzak hobetu

gingo dira. Gaur egungo eskakizuntara egokitze aldera, eta segurtasun baldintzei begira batez ere, sarbideak, larrialdietarako argiak eta berokuntza ere aldatu egingo dira. Era berean, egingo diren obrek jarleku kopurua ere gutxitu egingo dute, 200 jarleku gutxiago izango direlarik. Hasiera betean lokal handia bi txikitan banatu eta gela bilduago bi egiteko aukera ere aztertu zen.

Dirulaguntzen arloari dagokionez, Diputazioak aurrez agindu bezala, bere laguntza emango du, bertan egiten den lan motaren arabera kostuaren %50 edo 70a ordainuz. Iazko aurrekontuetan Amaia berriztapenerako 10 milioi zeuden izendaturik, baina Mendizabalek aurkeztu duen proiektuaren kostua ikusita, aurrekoaren aldean diruizendapen handia eskaini beharko zaio gai horri aurtengo aurrekontuetan.



Mila hitz baino  
argiagoa da  
irudi bat



**GUBI ILEAPAINDEGIA**

Otalora 5, 1. A, Tfnoa: 79 12 74



**SAMEGO  
GARBIKETAK**

Uriburu 24,  
Tfnoa: 79 70 36  
**ARRASATE**



Zer ari ote dira prestatzen aurtengo?

## Haratuzteak prest

### Play Back jaialdia programaren izarra

Prestatua du dagoeneko SUDC batzordeak *Haratuzteak 91* jaietarako programa. Otsailaren 9an hasiera emanik, astearte da, ohi denez, Arrasateko karnabalen jai egun berezi eta nagusia. Udalak onartua du elkarten arteko batzordeak aurkeztutako aurrekontua ere, 2.250.000 ptakoa guztira. Aurreko urtekoarekin konparatuz, %19an igo da aurten gastatzeko den diru kopurua, ia zkoa ez zen eta bi milioira iristen.

Programaren barruan aipagarrien, buruhandi eta erraldioen kalejira, heldu eta haurrentzako sokamuturrak eta dantzaldiak izango dira, festen hasiera mo-

duan. Larunbatean iaz lehen aldiz egin zen *Play back* jaialdia izango da berriz ere. Herriko hainbat jende ezagunen eskutik, hamalau sketch antzetzuko dira, ACDC, Romina eta Albano, Marta Sánchez, Pavarotti, Carreras eta Plácido Domingo besteak beste. Asteartean, arratsaldeko 4etan mozorro desfileak irtengo du Arbolapetatik, horren ondoren umeentzako ekitaldi berezia izango delarik. Gaueko dantzaldiaren barruan egingo da urteroko "sardinen hileta", gaueko 11.30etan. Gauerdiaren ondoren plazan mozorro lehiaketako sariak banatuko dira.

#### ■ Masterrak

Gainerako ikasketez gain, arlo bereziatiko bi master sartu ditu Eskola Politeknikoak bere ikas-programetan. Automatizazio industrialari buruzkoa bata, eta produkzioko gestioari buruzkoa bestea, biak ere Iraunkorrek antolatuturik.

#### ■ Euskararen neurketa

Arrasateko herrian euskararen kaleko presentzia zenbaterainokoa den jakiteko ikerketari ekingo dio Udalak otsailaren hirugarren astean, herriko bost auzotan. Neurketa hau datu-bilketa hutsa izango da eta Santamaina, San Andres, Erguin, Musakola eta kaleko hainbat puntutan jarritako langile batzuk kalean dabilen jendeak zein hizkuntzatan hitz egiten duen bilduko du. Azterketa hau Arrasateko euskararen egoera biltzen duen dossierraren zati bat izango da, urtero betetzen dena.


#### JAIOTZAK

Uribealago Zufiria *Maitane*, Urtarrilak 16.  
Aranzabal Leibar *Andoni*, 22an  
Justel Galan *Erik*, 24ean  
Berastegi Zubillaga *Saioa*, 23an.  
Macho Urizarren *Jokin*, 24ean  
Urrutia Eraña *Alaitz*, 24ean  
Okina Arana *Unai*, 26an

#### EZKONTZAK

*Cesar Viejo* & Miren Josune, urtarrilak 24, zibilez.  
*Juan Gezala* & Miren Igone  
*Madinabeitia*, urtarrilak 27, elizaz.

## SEGURTASUN-INJINERUTZA



Zure denda, lantegia, etxea, etab. **BABESTEN** ditugu **LAPURKETA** eta **SUTEEN** aurka  
Legutianoko atea 35, Tfnoak: 26 34 77 eta 26 33 44 GASTEIZ



Kontzesiño 2,  
Tfnoa: 79 14 06  
ARRASATE


**beatriz**  
oinetakoak eta  
poltsak

Erdiko kale 11, Tfnoa: 79 14 33  
ARRASATE

# SASKI NASKI Lehiaketa

1991

**OKENDO KIROLAK**



Zatoz gurera  ikustera.  
Banatzaile ofiziala

*Jose Aranzabal*  
TB, HI-FI, BIDEOKAMARAK



**ASTE HONETAKO IRABAZLEAK**

- ▶ FELIPE DEL HOYO
- ▶ YELENA DIAZ
- ▶ UNAI LAZKANO

**J. URIARTE**

**T A A**  
**M PA A**  
**Y PEL O**



# ADI!

**Saski Naski Lehiaketa amaitu da, irakurle. Orain OPARI HANDIAREN ordua da. Nori tokatuko?**

**Datorren astean Arrasate Pressekin irabazlearen izena argitaratuko du. Adi egon bada, irabazlea zeu izan zaitzke eta. Zorte on!**



Udalak Trefasa (Nito zena) zigortu nahi du

## Trefasari espediente zigortzailea

### Abenduan Aramaio erreka kutsatzeagatik

Udalak burututako azken Gobernu Batzordeak, Aramaio erreka ura kutsatzearen, Trefasa enpresari espediente zigortzailea irekitzea erabaki zuen. Udaltzaingoak aurkeztu zuen txostenak zioenez, abenduaren 19an erreka urak kolore gorriko omen zekarren; begiratu ondoren, gorritasun haren arrazoa Trefasa enpresan zegoela egiaztatu zuten udaltzainek. Espediente zigortzailea irekitzeko erabakia, Udaltzaingoaren txostenean oinarrituta hartu zen.

Ez da lehen aldia enpresaren batek Aramaio erreka kutsatzen duena, aurrez Amat, eta Santa Agedako Psikiatrikoak ere isunak ordaindu behar izan dituzte arrazoi berberagatik. Dena dela, Udalak ingurugiroari dagokionez ezer asko egin ezin duenez, isun horiek orain artean sinbolikoak izan dira.

Bestalde, aipagarria da Arrasateko Udala Aramaio erreka garbi edukitzeko ikerketa eta planeamendua egiten ari dela, kolektorea eta depuradorak jarrazteko asmoz.

#### **Gelmaren bategia**

Gelma S.A.L.-en bazkideek, joan den igandean egindako bileran Osña SA eta Maquinaria de Mondragon enprekin bategitea erabaki zuten. Hiru enpreson bategitearekin, Soziedade Anonimoa sortuko da, atzerriko kapitalari ere lekua eginaz. Horrela, ia bikoiztu egingo da enpresaren kapital soziala. Datozen lau urteetarako egitasmoen artean, bestalde, 1.600 milioitako inbertsioari ekingo zaio, eta azpimarratzen da enpresaren lan sistemaren aldatzea eta berrantolaketa.

#### **Eki**

Eki talde ekologista txalogarritzat jotzen du, kaleratutako ohar batek dienez, azkenaldian Udalak ibaietara egiten diren isurketen inguruan hartu duen jokabidea, eta isurketa kutsakorrik egiten duen edozein lantegiri isun handiak ezartzeko bidea har dezala, eta zigor handiak ezartzeko modurik dagoen azter dezala eskatzen. Ekiren eritziz, gizarteak ongi bereganatua du naturarengan eragintzara duten enpresen aurka neurriak hartu beharra, eta enpresen izaera sozietarioak ez lukeela horretan eraginik izan behar ematen dute aditzera.

#### **NAN**

Nortasun Agiria urrian eta azaroan Arrasateko Udaltzaingoan berriro zutenek jasotzeko moduan dituzte Udaltzaingoaren bulegoetan.

Arimazuri plaza Tfnoa: 77 06 07 ARRASATE

**LOREA**  
Oinetakoak  
eta poltsak  
Paz 9, Tfnoa: 25 66 32  
GASTEIZ

**URRATS**  
**AHOLKULARITZA**  
GARIBAI 3,  
Tfnoa: 79 87 74 ARRASATE



Datorren ikasturterako eskola berria egin nahi da.

## Udalak (15-4) autobideari bai

*Beste partiduek ez zuten HBren mozioa onartu*

Gai bakarra izan zuen joan den asteleheneko Udalaren Osoko Bilkura bereziak: Gipuzkoa eta Nafarroa lotuko dituen autobidea. EA, EAJ, EE eta PSOEek eskatu zuten pleno berezia, Leizarango autobideari buruzko lau puntu onar zitezten: horretaz instituzioek erabakitako puntuak onartu, autobidea behar demokratikoa dela adierazi, HBren jarrera salatu eta otsailaren 16rako manifestaldirako deia eginez.

HBk bere mozioa aurkeztu zuen, autobideak ez dezala Leizaran zeharkatu esanez, elkarrizketa bultzatzeko beha-

rra adieraziz eeta aurreko puntuak onartu ezean, herri kontsulta egitea eskatuz. Bozkatzeko orduan 15 botu irten ziren autobidearen alde eta 4 kontra, HBrenak. Azken hauek aurkeztutako proposamenak HBren aldeko botuak baino ez zituen jaso, gainerakoak kontra.

Sozialistek ezik, gainerako partiduek azaldu egin zituzten euren jarrerren arrazoiak. Plenoak iraun zuen bitartean, Lurralde alternatibakoek enkartelamendua burutu zuten herriko plazan. Bilkura bat ere gorabehera barik egin zen.

### AEK

Arrasateko Erdu euskaltegiak "Euskarak AEK behar du" lemapean Bilbon larunbat honetan izango den manifestaldira joateko autobusak antolatu ditu. Manifestazioaren bidez, Administrazioari bere lana onartu eta laguntasanak emateko elkarrizketarako prestatzea eskatzen dio Koordinakundeak. Manifestaldirako autobusak larunbat arratsaldeko 3etan irtingo dira Arbolapetatik eta izenematea egiteko AEKra bertara nahiz AEDra hurbil daitezke interesdunak.

### Bakearen alde

Deba Garaiko Kristau taldeek deiturik, asteazken iluntzean otoitzaldi berezia izan zen Arrasateko San Juan Bautista Parrokian, Gatzaga, Eskoria-tza, Aretxabaleta eta Arrasateko herri-tarrentzat. Parrokia bete-beteta, indarkeriarik eza eta bakearen eguna izaki, helburu horren aldeko otoitz eta gogoe-tara bildu ziren bailarako fededunak, Golko Pertsiarreko gerra bereziki go-goan hartuta.

### Espediente zigortzailea

Arrasateko Udala espediente zigortzailea ireki dio Uribe Auzoko bizilagun elkarteari, auzoko jarleku batzuk Udalaren baimenik barik kentzeagatik.

Bestalde, Telleria baserriko lurretan baimen barik eraikitako txabola legeztatzeko, bi hilabeteko epea eman du .



## ETXEPARE - BILINTX LIBURUDENDA

*Liburuak eta diskoak*

Ibargarai 12, Tfnoa: 76 40 50 BERGARA



## ERAÑA AHOLKULARITZA

OROTARAKO ASEGURUAK

Kontzezino kalea 4, behe Tfnoa: 79 83 95 ARRASATE



Opakuako gaina leku aproposa da eskiatzeko, eta arrasatear asko joaten da hara. Baina nork esango zuen eskiatzera Arrasatetik Arrasatera joan behar genuenik? Argazkian agertzen den Opakua gaineko leku horrek Arrasate du izena, eta pagadi artean dago, Aguraindik Opakua gainean, Entzia mendilerroan.

Putzutik bai, baina iturritik zuzenean edaten... gutxitan ikusi ditugu txakurrak. Gaixoak haginka egiten zion urari ere, urrutitik harrika botatako hezurrari bezala. Urkuluko urak baduela estimazioa...



◀ Juan Antonio Aretxaga atxabaltarra eta Lurdes Isasmendi untzilarra azaroaren 3an ezkondu ziren Untzilan. Bidaia egiteko Pirinio mendikatea hautatu zuen bikote mendizale honek. Zorionak!

Epelde

**LASAGABASTER**

**JANTZIDENDA**

*Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena*

Garibai 9, Tfnoa: 79 89 97





*Izen*  
**PROPIOAK**

● **JESUS IZAGIRRE**, 53, donostiarra eta Injeneru Teknikoa. Joan den astetik, Mondraren entrenatzaile berria da, Pello Bengoetxea ondarrutarra kanporatua izan ondoren. Mondra zuzentzera etorri aurretik, Alaves, Gernika, Barakaldo, Mirandes, Durango, eta Laudioko taldeak zuzendu ditu.


● **ANDONI VILLAR**, 27, arrasatearra izendatu du Besaidek elkarteko lehendakari. Andonik Eskola Politeknikoan egin zituen Injinerutza Tekniko ikasketak eta bertan dago gaur egun irakasle, Teknologia arloan, zenbaki kontrola eta antzeko asignaturetan. Aurretik Alecopen lan egina da.

● **MARI KARMEN GALLAS-TEGI**, 45, bergararra izango da hurrengo Jauriaritzako Ekonomia sailburua, Eusko Alkartasunatik. Mari Karmenek Ekonomia ikasketak burutu zituen EHUan, Sarrikon, eta Deustuko Unibertsitateko irakasle izan da hainbat urtetan, Gobernurako izendatu duten arte. Donato Gallastegi abokatu eta idazle ezagunaren alaba da.

Beste hainbat jende bezala, **Befiardo** eta **Arantzazu** gure lankideek, ETBko "Kalejira" programan parte hartu zuten. Zer ekarri zuten edo zer ez, ez dizuegu esango, datorren asteazkenean, otsailak 6, ikusteko aukera izango duzue eta. Aurreratu dezakegun bakararra zera da: egindakoaz gustora etorri zirela eta gainera primeran pasatu zutela.



◀ **Nekane Belinchon, Laura Perez** eta **Jordan** izan dira aste honetako Saski Naskiren irabazleak. Okendorenean izan ziren hirurak zegokien saria jasotzen. Zorionak!




**ERRASTI KRISTALDEGIA**  
Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
akzesorioak

Olarte kalea 47, behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

**ITSASKI**

arrandegia  
arrain freskoa  
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa  
Arrasate. 79 98 94



Zurgin Kantoi, 2

Tfnoa: 79 20 04

ARRASATE

**BONBOIAK**



**FRUITU LEHORRAK**  
Otalora 2, ARRASATE

# Ohitura zaharrari eutsiz

**Santa Ageda bezperan atez-ate etorriko dira, oles egitera kantari. Berrogei urtetik gora daramatzate ohitura zaharra berritzen.**

**S**anta Ageda bezperan kantura irteteko ohitura, zaharra da oso Arrasaten. "33 edo 34ean hasiko ginen gu, gerra aurreko taldea", dio Sabin Arrietak, Udalpe elkartean. Sabin Arrieta, Jesus Barrutia, Joseba Bengoa, Joxe Mari Mendizabal eta Karmelo Eriz bildu ditugu solasera. Berrogeita hamar lagun edo ibiltzen ziren gerra aurreko taldean, eta orduan ere ospitalerako izaten zen batutako dirua. Harez gero, urteak pasa eta

gerra ondorenean hasita, beste talde bat da, 46 edo 47tik gaur arte urtero-urtero kantuari ekiten diona. "Baserrietatik hasi, Kanpazar gainera igo eta handik Lope baserritik bueltan Musakolarara jaitsi eta gero Artxubiraino jotzen genuen. Ibili? asto zaharrak moduan! Bazkaldu Muxibarrenean egiten genuen, eta arratsaldez beti Bedoñara. Gauean kaleko soziedadetara joaten gitzuan eta akaberakoa udaletxe aurrean, gabeko

hamarrak inguruan edo".

## Kantau ala erreza?

**B**aserriaren atarira iritsitakoan galdera derrigorra zen: "Kantau ala erreza?". Izan ere, urtearen kabuan etxean norbait hil bazen, errezatzea eskatzen zuten. "Orduan, Aita gurea eta Requiescat in Pace errezeian zan, txapela kenduta. Gerra aurretik, batzuk gertatu barik pentsetan euen, gozak Santa

*Ageda kantuen, eta gertau zan kasue", gogoratzen du Sabineek, "baserri batera allegatu eta Kantau ala erreza? Errezetako eskatu eta etxakixien".*

Kantatzea tokatutakoan, bi eratakoak abesten dira: Santageda kopletan, *Onetsi* eta *Nere Kristauak* izenekoak. Gainerakoan beste euskal kanta batzuk ere kantatzen dira.

Santa Agedako kantonerekin batera, poltzeroak ibiltzen dira aspaldiko urteetan. Besteek kantatzen zuten bitartean etxez-etxe pasatzen direnak dira, dirua batzea beste egiteko barik. Lehen ondo banatuta izaten omen zuten zeinek nora igo, eta baita diru mordo galanta batu ere! "Beste egiteko barik etortzen zien batzuk poltzero Donostiatik eta arpe-

**Batutako dirua beharrea daudenei laguntzeko erabiltzen da**

*gixe atara eta ez eukenai be dirue ataraten jutzien".*

## Dirua norako

**U**rte askoan zehar, kantuan batutako dirua Ospitalerako izaten zen, Iturbide egoitza egin arte. Milioitik gora ere urterik gehiengotan batu izan da, eta gaur beharrea dauden beste batzuen artean banatzen da jendearen borondateak emana: langabetuak, gaisoak, separatuak eta ama ezkongabeak, eta batez ere etxerik



Eguraldi txarrari ere aurre eginaz, elurretan ageri dira, Udalarako bidean.



Txistularien laguntzarekin irten zuten 55ean ere.

gabe daudenei laguntzen zaie. Kantoreen bazkaria eta afaria ordaindu eta gainerako guztia eman egiten da. Gainera, bazkaria bera ere berakazopa eta baserrietan batutako arrautza eta txorixoaz egiten zen gehienean, "senzillo-senzillo". Norbaitek solomo apurten bat ematen bazuen ere, bapo!

### Oktaboa

**O**ktaboa herriko kuadrila bat zen, eta euren-gandik sortu zen gerra ostean berriz kantuan hasteko ideia. Berrogei lagun edo gehiagoko lagun talde arraroa zen, "gerrako Mongomerirenarengatik deitzen ziguten hala" esaten du Joxe Marik. Soziedadea egin zutenean argazkia eskatu zioten Mongomeryren

familiari. Sarrera-sarreran ipini zuten gero Monty.

### Anekdotak

**U**rte guzti horietan batutako dirua adina dira batutako kontuak eta gertaera xelebreak. "Baserrietan gauzan asko ematen zen, eta urte baten holakotxe konejutzarra ekarri zan Bedoñatik. Soziedadien lotuta itxi eta handik egun batzutara akordau gitzenien, deitu nauen Ospitalera eta segidan etorri zan Doloritas konejotan. Hak konejuak Doloritasek besteko pixue ba jeukan! sekula etxuat ikusi halako konejorik".

Baserrietako harrera oso beroa izaten omen zen. "Ilusio handia izaten zuten gu iristeko, eta amandre batzuk sagarrerriak euki-

tten dittue gureztat."

Gaztetan ondo pasatzeagatik ekin bazioten ere, urtetan lan horri ez jaregiteak beste zerbait ere esan nahi du, euren ustez. Muxu truke egiten da, gainera, diru batzea, norbere lana galduta,

beste egun batean errekupe-ratuta edo dena dela. "Hasieran, eguneko soldatie galtzen euenai pagau eitten jakon, 50 pta edo. Baina nominan euzenei edo jubilauei bapez". Gaur egun ez du inork ere kobratzen. Gaztetan, "urte baten Uri-barritik gora baserrietara aldapan gora gindoiezela, gu arnasie estutute, eta Jazinto Bergara txistularixe, gu baino hogeiren bat urte zaharragoa izan arren, han joan zen jo eta jo".

"Kakik, berriz handi-goa egin zuen. Santa Ageda egunean tabernan edaten ari zirela Francoren erretratoari begira jarri eta hala esan ei zion: "Hik be egarrixe eukikok eta eraik" eta baso bete ardo bota zion". 10.000 pta ordaindu eta bestaldera alde egin beharra izan zuen.

## Badator aurtengoa

**U**rtero berritzen da Arrasaten ohitura zaharra. Santa Ageda bezperan goizeko 8etan hasiko da kantoreen eguna. Parrokiako mezarekin. Goizean denak beherantz joaten dira, eta soziedadera iritsitakoan bi taldetan banatuta, batzuk Bedoñara eta beste batzuk Zigarrola eta kalebizitzak egiten jarduten dira. Arratsaldean batzuk San Agedara beste batzuk Urribarrira.

"Alkondara zurixe, praka mitraiasak, abarkak eta pañuelue, horixe da gure uniforme", berrogei lagun inguru ikusiko dituzu kaleetan zehar kantari, gazte eta zaharrak nahasi.

Abestiak entzutearen truke, bota daukazunetik poltsara!!

**AUTO  
ESKOLA**

**ARRASATE**

**7etatik 8etara klase teorikoak**

Olarte kalea 30, Tfnoa: 79 89 89 ARRASATE

**X. Gorosarri eta M.L. Trojaola doktoreak**

**Mediku espezialistak  
erreumatologian**

Titulu nazional frantsesa (Lyon-eko Unibertzitatekoa)

HEZUR, MUSKULU, ZURDA ETA GILTZADURETAKO  
GAIXOTASUNAK.

Ornoterapia (manipulazioa, frakzioak...)

Erreumatologiari aplikaturiko akupuntura

Osteoporosia: Diagnostikoa, prebentzioa,  
tratamendua.

Zaldibar 1, 1. Tfnoa: 77 00 40 ARRASATE




**HAURTOKO**

Arrasate Pasealekua 4,  
Tfnoa: 79 14 90 ARRASATE

**ARAMAIO  
okindegia**

Maisu Guridi 3,  
Tfnoa: 79 36 46




**BITXIEKIN MAITEMINDUAK**

**Bitxitegia**

**Erlojutegia**

**NAROKI**

Erdiko kale, 23 Tel. 79 20 47 ARRASATE



**ZENBAKI**

Kontabilitatea  
Fiskalitatea  
Lana  
Zuzenbidea  
Juridikoa  
Finantzaketa  
Aseguruak

Basabe industrialdea  
Tfnoa: 79 88 75  
79 75 99

ARETXABALETA



**Parques  
y Jardines**

PARKE ETA LORATEGIEN  
SORKUNTZA

LORAZAINTZAKO  
MANTENIMENDUA ORO HAR

LANDARE-BIRSORKUNTZA  
HIDROEREINTZAZ




Casa-Torre kalea. Tfnoa: 94-681 90 82 ABADIÑO (BIZKAIA)



# Amaitu da lehen fasea

**Talde batzuen sailkapena gol averageak difentziagatik erabaki**

# JMA JMA



**ILLARRAMENDI**

**Geure lantegiak ditugu**

Iturriotz 7 bis, Tfnoa: 77 12 71 ARRASATE



**LANTEK**

Informatika teknikoa

Basabe poligonoa, C-1,  
Tfnoa: 79 66 21  
ARETXABALETA

# JOMA

JOSE MARI GALLASTEGI Y CIA S.A

Gipuzkoa Etorb. 32,  
Tfnoa: 79 16 55 ARRASATE



# A taldea

	Partiduak				Golak		Ptak.
	Jokat.	Irab.	Ados	Gald.	Alde	Aurk.	Ttak.
Sumin Ugarte	13	11	0	2	71	28	22
Bizkorrak	13	11	0	2	55	31	22
Golfos Persicos	13	9	3	1	70	28	21
Zortzikin nahiko	13	9	1	3	63	35	19
Autovia patutia	13	9	1	3	49	39	19
Potrozorri	13	8	1	4	43	39	17
Mutikotes	13	6	0	7	40	37	12
Kakajauri	13	4	2	7	24	44	10
Bar Alcalde	13	4	1	8	39	73	9
Ezkinako ontzak	13	3	3	7	30	55	9
Yokese	13	3	3	7	25	45	9
Cañ. Pto. Urraco	13	3	2	8	30	37	8
Bayern de Leniz	13	2	1	10	35	70	5
Ugarixoak	0	0	0	0	0	0	0
<b>Total</b>	<b>182</b>	<b>82</b>	<b>18</b>	<b>82</b>	<b>574</b>	<b>574</b>	<b>182</b>

SAILKATUAK

# B taldea

	Partiduak				Golak		Ptak.
	Jokat.	Irab.	Ados	Gald.	Alde	Aurk.	Ttak.
Zuloak	13	12	0	1	67	28	24
Arrasate Kirolak	13	9	2	2	57	37	20
Los Heredia	13	8	2	3	75	35	18
Kriskibalda	13	8	2	3	57	33	18
Laso Arregi	13	8	2	3	55	40	18
Sokoa-600	13	7	2	4	42	45	16
Toki Eder	13	6	0	7	53	73	12
La ira de Odin	13	5	1	7	51	59	11
El Regreso	13	4	2	7	52	64	10
Okendo Kirolak	13	4	1	7	45	55	9
Solano 90	13	4	1	8	45	60	9
Aizpun bila	13	4	1	7	37	57	9
Resakas	13	3	0	10	31	88	6
Gimnasio Saioa	0	0	0	0	0	0	0
<b>Total</b>	<b>180</b>	<b>82</b>	<b>16</b>	<b>82</b>	<b>693</b>	<b>693</b>	<b>180</b>

SAILKATUAK

# C taldea

	Partiduak				Golak		Ptak.
	Jokat.	Irab.	Ados	Gald.	Alde	Aurk.	Ttak.
Alperrak	15	13	1	1	106	41	27
Pepelus	15	12	0	3	70	43	24
Fosforos	15	10	1	4	90	68	21
Artano	15	11	1	3	89	39	21
Diego Antonio	15	9	2	4	77	52	20
Bar Kajoj	15	8	3	4	89	46	19
Zelai	15	8	3	4	72	51	19
Los motz	15	8	0	7	73	75	16
Sannan Hussein	15	7	1	7	54	57	15
Kannabis boys	15	6	2	7	63	66	14
Danok lagun	15	4	4	7	62	76	12
Muru Barren	15	4	0	11	39	74	8
Bacilona	15	2	3	10	52	83	7
Steaua del grio	15	3	1	11	34	109	7
M.G.M.	15	3	2	10	31	106	6
Neptune	0	0	0	0	0	0	0
<b>Total</b>	<b>240</b>	<b>108</b>	<b>21</b>	<b>108</b>	<b>1.001</b>	<b>1.001</b>	<b>240</b>

SAILKATUAK

# D taldea


	Partiduak				Golak		Ptak.
	Jokat.	Irab.	Ados	Gald.	Alde	Aurk.	Ttak.
Argi ibili	15	15	0	0	151	39	30
Lorategi-Potroak	15	12	0	3	78	48	24
Rayo Vatikano	15	10	0	5	58	53	20
Camerun's	15	9	1	5	92	49	19
Adelaida	15	10	0	5	74	36	18
Artzanko's	15	8	2	5	69	55	18
La ban. de Pepe	15	8	2	5	63	46	18
Balaik	15	9	0	6	60	55	18
Sisepuede	15	8	0	7	63	33	16
Babarias	15	6	3	6	47	53	15
Gau azkenak	15	6	0	9	42	52	12
Avinagraos	15	5	1	9	43	73	11
Gastao	15	3	2	10	42	109	8
Inter de alimañas	15	2	0	13	37	94	4
Sukumu-Aterpe	15	1	2	12	25	76	4
B.B.V.	15	1	1	13	27	103	3
<b>Total</b>	<b>240</b>	<b>113</b>	<b>14</b>	<b>113</b>	<b>974</b>	<b>974</b>	<b>240</b>

SAILKATUAK

a.eme.interiores

GARIBAI 9  
20 500 ARRASATE  
(GIPIZKOA)  
Tlfnoa: 943-791503  
Telefax: 791489

# DENDARABA



## MERKATAL ZENTRUA

Paz, Postas eta Independencia kalea Tfnoa: 26 79 83 GASTEIZ

# ARRASATE PRESS

# Hileko agenda

**ASTELEHENA**

**ASTEARTEA**

**ASTEAZKENA**

**OSTUNA**



- Santagedako Koruen irteera.
- Goardiako farmazia. Egunez: Erguin Gaeuz: Guallar (Bergara)

**5**

- Santa Ageda eguna.
- Goardiako farmazia. Egunez: Santamaina Gaeuz: Estella (Bergara)

**6**

- Goardiako farmazia. Egunez: Maala Gaeuz: Mozos (Bergara)

- Eguen Gizen.
- Goardiako farmazia. Egunez: Andres Gaeuz: Camachua

**11**

- Goardiako farmazia. Egunez: Santamaina Gaeuz: Estella (Bergara).



- Haratuzteak. Eskolumeen desfilea. 4.00.
- Goardiako farmazia. Egunez: Maala Gaeuz: Mozos (Bergara).

**13**


- Hausterre eguna.
- Ehiza eta arrantza elkartearen Batzar Orokorra.
- Goardiako farmazia. Egunez: San Andres Gaeuz: Camacho (Bergara)

- Goardiako farmazia. Egunez: Puy (Bergara)



**18**

- Elikadura eta teknologia berrien ihardunaldiak: "Elikagaiak gordetzeko era berriak". Monterron. 15.30-17.30.
- Goardiako farmazia: Maala



**19**

- Elikadura eta teknologia berrien ihardunaldiak: "2000. urteko janaria". Monterron. 15.30-17.30.
- Goardiako farmazia: San Andres.

**20**

- Elikadura eta teknologia berrien ihardunaldiak: "Mikrouhinezko labeen prestaketa". Monterron. 15.30-17.30.
- Haratuzteak 91 Argazki Rallyko sari banaketa eta erakusketaren hasiera. Monterron. 19.00etan.
- Goardiako farmazia: Ferrerias.



- Elikadura eta teknologia berrien ihardunaldiak: "Elikagaiak gordetzeko era berriak". Monterron. 15.30-17.30.
- Goardiako farmazia: Ferrerias.

**25**

- Goardiako farmazia: San andres

**26**

- Goardiako farmazia: Ferrerias

**27**

- Goardiako farmazia: Iturriotz



- Haratuzteak 91 Argazki Rallyko sari banaketa eta erakusketaren hasiera. Monterron. 19.00etan.
- Goardiako farmazia: Ferrerias.



TUNA

OSTIRALA

LARUNBATA

IGANDEA



1

- Zinea: "Amor loco". Amaia. 22.30.
- Goardiako farmazia. Egunez: Ferrerías Gaeuz: Camacho (Bergara).

2

- Futbitoa Zaldibarren.
- Umeentzako antzerkia: "Baso miresgarria". Amaia. 18.30.
- Goardiako farmazia. Egunez: Iturriotz Gaeuz: Puy (Bergara)

3


- Futbitoa Zaldibarren.
- Rugby: Arrasate-Durango. Garagartzan. 11.30.
- Goardiako farmazia. Egunez: Musakola Gaeuz: Puy (Bergara)

7



8

- Zinea: "El rey de la comedia". Amaia. 22.30
- Goardiako farmazia. Egunez: Iturriotz Gaeuz: Puy (Bergara)



9

- Futbitoa Zaldibarren.
- Centro Extremeño: bazkaria Kirokdegian.
- II. Play Back Jaialdia. Amaia. 22.30.
- Saskiboloia: Central Jet Euskal Air-Lasalle Deusto. 6etan Musakolan.
- Goardiako farmazia. Egunez: Musakola Gaeuz: Guallar (Bergara)

10


- Futbitoa Zaldibarren.
- Gesalibar auzoko jaiak.
- Haratuzteak.
- Futbola: Mondragon-Amorebieta. 4etan Atxabalpen.
- Txirindularitza: Aretxabaletan.
- Goardiako farmazia. Egunez: Erguin Gaeuz: Guallar (Bergara).

14



15

- Zinea: "Una llama en mi corazón". Amaia. 22.30.
- Goardiako farmazia: Egunez. Musakola Gaeuz: Guallar (Bergara).



16

- Futbitoa Zaldibarren.
- Pilota: Arrasate-Hondarribia. Musakolan. 10.30.
- Antzerkia: Bederen 1. "Jacques eta Nagusia" komedia. Amaia. 22.30.
- Goardiako farmazia: Erguin



17

- Futbitoa Zaldibarren.
- Goardiako farmazia: Santamaina

21



22

- Zinea: "Supervixens". Amaia. 22.30.
- AEDren Batzar Orokorra. Monterron. 19.00.
- Goardiako farmazia: Erguin

23

- Pilota: Arrasate-Murumendi. Musakolan. 10.30.
- Futbitoa Zaldibarren.
- Zuhaitz eguna. Garagartza. 11.30.
- Organo kontzertua. Parrokia. 20.00.
- Goardiako farmazia: Santamaina



24

- Futbitoa Zaldibarren.
- Futbola: Mondragon-Aurrera Vitoria. Atxabalpen. 4.00.
- Euskadiako Kross Txapelketa: Aretxabaletan.
- Goardiako farmazia: Maala.

28



... eta abar..

Zeuk aukera

# Indarberritu den lehoi arrasatearra



■ Lehoiak normalean urte asko hartzen baditu ere, Arrasateko lehoi honek 61 bete ditu eta indarberriturik beste hainbeste, behintzat, hartzea nahi lituzke.

• 1929. ean **RONEO**k, hizkuntza ingelesa medio, bulegoetarako altzariak egiteari ekin zion. Bizkor eta indartsu bizi izan da orain arte. Eta etorkizunean berdintsu jarraitzeko indarberritze saioa heldu zaio.

• 1990. urtea garrantzi handikoa da **RONEO**rentzat, planta guztiz berria zabaldu du Arrasaten, 2.900 m<sup>2</sup> koa, azkenengo teknologia berriko makinak, pintura tresna eta CADa instalatu dituelarik.

• Diseinuan ere aldaketa nabari egiten dihar-  
du, produktu berrietan sartzen, aukietan batez  
ere, pertsonala hezitzen ari da, eta komertzial-  
zazio sarea finkatzen. Saso batean teknologia  
inportatu bazuen ere orain produktuak esporta-  
tzen ditu.

**RONEO indarberritu da, Arrasate ere bai.**

**RONEO UCEM**

Bulegoetarako Orotariko Hornidura Ingenieritza



Argazkian tentso samar ikusten bazaie ere, lasai egoteko moduan daude *Kajoi* tabernako jokalaria. *Bacilona* ta'dearen aurkako partiduan garaile ateratzeko ez zuen aparteko zailtasunik izan, baina beste kontu bat izan zen sailkatzearena, gol averageari begiratu beharra egon zen eta. Sartutako golei esker *Kajoi* sailkatu eta *Zelai* kanpora. Hor ikusten da gol asko lortzearen garrantzia.

**OPEL**   
Hobeak esperientziaz

**TALLERES OLA, S.A.**  
Erakusketa Arrasaten:  
Loramendi 2, Tfnoa: 79 05 86

  
**Lorategi**  
**Kafetegia**

Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67

**ALCANADRE**  
TABERNA



**GURE LEKU**  
taberna

Zarugalde kalea, Tfnoa: 79 20 29

## E maitzak

### C taldea

Kannabis boys 6	Fosforos 6
Zelai 1	Diego Antonio 1
Danok Lagun 5	Sanann Hussein 5
Pepelus 10	Steaua del grifo 3
Los motz 6	Alperrak 5
Bacilona 3	Bar Kajoi 6
Neptuno 0	M.G.M. 1
Artano 8	Muru barren 3

### D taldea

Camerun's 3	Sisepuede 1
Inter de alimañas 4	Avinagraos 6
Artzanko's 5	Lorategi-Potroak 4
Gau azkenak 3	Argi ibili 8
Sukumurus-Aterpe 1	La banda de Pepe 8
Balalaik 11	Gastaos 7
Rayo Vatika-no 4	Adelaida 2
B.B.V. 3	Babarias 6

**ZENBAKI**  
**SARITUAK:**

**6.040** (Trikiti)

**5.997** (Kajoi)

**Ebaki eta gorde txartel hau!**

Trikitik eta Kajoi tabernak Walkman bat zozkatuko dute astero. Astero aterako da zenbaki bat, eta saria jasotzeko epea 6 egunekoa izango da.

Sariturik agertu ezean, hurrengo asterako gordeko da saria, eta antzeko sariren batekin trukatu ahal izango da Trikitin.

*Trikiti*

**SOINUA • BIDEOA • T.Ba • KOMUNKAZIOA**

Otalora 25, Tfnoa: 77 13 20 Faxa: 79 88 56 ARRASATE

N. 12109



# Txutak

## BALANTZETXOA

Zaldibarko futbito txapelketari bukaera eman zaio dagoeneko, eta atera daitekeen lehen ondorioa zera da: 24 taldek aurrera egiteko aukera daukatela, gainontzeko 36ek partiduak ikusteaz konformatu behar dutelarik. Sailkatuak zeintzuk diren jakiteko, aurreko orrialdean begiratzea besterik ez dago. Beraz, pasatu diren 15 ihar funaldiei buruzko aipamen nagusiak egin behar.

Lehenik, esan beharreako da antolatzaileen lana

bikaina izan dela, gauzak aurrez pentsatuta zeukaten bezala egin dituztelako. Ez litzaieke batere gaizki etorriko beste jenderen baten laguntza, hamarren bat izango bait dira lanean dabiltzanak.

Bigarrenik, orokorrean behintzat, taldeen jarrera positiboa ere aipagarria litzateke, partidu guztietara agertuz, horrela txapelketaren martxa onari lagunduz.

Hirugarrenez, txapelketa honek sortu duen jakimina ere oso aipagarria da, jende asko biltzen da eta, Zaldibar inguruan partiduak jokatzeko direnean.

Azkenik, kiroltasunaren kontua ere aipatzekoa da, oso partidu gutxitan ikusi bait dira kiroltasunik gabeko jokaldiak.

*Beñardo Kortabarria*

## DATORREN ASTEBURUAN

### A taldea IGANDEA

10etan	Argi Ibili .....	Zortzikin nahikoanmi.
11etan	Bar Artano .....	Camerun's
12etan	Potrosorri .....	Kriskibalda
13etan	Artzarkos .....	Autovia patutia

### B taldea LARUNBATA

9etan	Bizkorrak .....	Arrasate Kirolak
10etan	Alperrak-Aldatz .....	Fosforos
11etan	Lorategi-Potroak .....	Adelaida
12etan	Sokoa 600 .....	Golfos Persicos

### C taldea LARUNBATA

13etan	Zuloak .....	Diego Antonio
15.30etan	Bar Kajoi .....	Los Heredia
16.30etan	New Laso Arregi's .....	Pepelu's

### IGANDEA

9etan	S. Industriales Ugarte .....	Rayo Vatica-no
-------	------------------------------	----------------

Sailkatu diren 24 ekipoak hiru taldeetan sartu dituzte Zaldibarko txapelketako bigarren faseerako. Hurrengo faseerako zortzi ekipo besterik ez dira geldituko, talde bakoitzean lehen bi postuak lortzen dituztenak eta hirugarren postua lortzen duten bi talde hoberenak. Erabakitzeke gol diferentziari begiratuko zaio.

**LUIS  
CORRA  
SALVARREY,  
S. L.**

Instalazioak eta produktuak:


- Galbanizazioa
- Bibraziozko leunketa
- Pinturak
- Urak

Galdakaoko Errepidea 2, 3. Tfnoa: 94 - 416 04 70 BILBO



**ARRASATE  
KIROLAK**

Kontzeziño 8, Tfnoa: 79 46 12



**OPTIKA - OFTALMIKA**

**ERABILI ETA BOTATZEKO LENTILAK.**

**ESKATU INFORMAZIOA**

Kontzezino kalea 6, Tfnoa: 79 25 98



**URONDO ELEKTRIZITATEA**

Nafarroako Etorbidea 11,  
Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE



Jon Belar

## Zinemagintzan diharduen pintore arrasatearra

**B**ilbon jaio, Madrilen eta Donostian lan egin, eta orain Martutenen bizi bada ere, Jon Belar Madinabeitiak bere burua arrasateartzat dauka. Izan ere, jaio bezain pronto, duela 56 urte, Arrasaten bizitzera etorri zen, haurtzarora eta gaztarora bertan egin zituelarik. Gaztetatik, Jon Belarrek artistarako joera izan du, eta horregatik aktoretzatik aurrera atera izan du bizimodua. Orain, Martutenen bizi da, pinturak eginez.

— Zure ibilbide artistikoaren lehen urratsak?

— Beno, lehenak hementxe bertan eman nituen, Arrasaten. Pare bat zarzuela egin nituen, “*Katuska*” eta “*El caserio*”. Gero, eskola profesionalean talde bat sortu nuen, neu zuzendaria nintzelarik. Gurea zineman, eta orain Eskualde Ospitala den tokian antzeztan genuen. Horiek izango lirateke, artista bezala eman nituen lehen urratsak.

— Eta gero, zer?

— 1960an, gutxi gorabehera, telebista espainiarrera joan nintzen, han zazpi urtez antzerkigintza eta zinegintzan lan egin nuelarik. 1967an Arrasatera itzuli, eta koa-

droak margotzen hasi nintzen, berriro ere Cerrajeran lan egin nahi ez nuelako.

— Hor bukatzen da zure aktore lana?

— Ez, 1974ean, aktore lanari berrekin nion, Miguel de la Cuadra Salcedorekin kooperatibismoari buruzko dokumentala eginez. Dena dela, pintura munduan ikusten nuen neure burua, eta horregatik Donostian bertan estudio bat ireki nuen. Euskal zinemagintza sortzen zegoen garai hartan, eta nik esperientzia nuenez, sartzeko konbentzitu ninduten. Horrela, “*Amor live*” pe-

Zorte txarra izan nuen, filmatzen ari ginelarik sabeleko arazo batzuk kirofanora eramanez ninduten, eta filmea bertan behera utzi behar izan nuen. Sendatu eta gero, iaz, “*El reino de Victor*” filme laburrean parte hartu nuen, filme laburrei dago kienez sari-errekorda gainditu duen filmean, hain zuzen ere. Aurten, telebista autonomikoentzat “*Terranova*” izena daraman lana grabatu dut.

— Eta orain, hainbeste filmetan parte hartu eta gero, gogoratzen duzu zinean has-teko arrazoia?

likula ugaritan hartu nuen parte, baina asko ez ziren es-treinatu ere egin.

— Zinema mundua polita da?

— Euskal Herriko zine giroa bikaina da, jendea oraindik hasten dagoelako eta alde horretatik, adiskide-tasun handia dago. Madrilen desberdina da, “divo” ugari dago eta euren arteko harre-manak ez dira izan beharko liratekeen bezain onak. Beno, hor ere denetarik dago eta badira lehen mailako aktore eta era berean lehen mailako pertsona direnak.

— Madril aipatu duzunez, zer deritzozu euskal zinema-gintzari?

— Euskal zinemagintzarik ez dagoela uste dut, eta niri borondate arazoa dela iruditzen zait, hau da, “gingo dugu” esatea, eta egin daite-ke zeren zuzendari, aktore, teknikoak eta baliabideak hor bait daude, oso onak gainera. Izenei begiratzea besterik ez dago: Imanol Arias, Pedro Olea, Patxi Brisquet, Blanca Badiola, Alfredo Landa, Mikel Garmendia, Carlos Zabala eta abar luzea. Gauza batzuk egiten ari dira, baina askoz gehiago ere egin dai-teke produktore konpainiak mugitzen hasten badira, ba-tez ere.

### “Euskal zinemagintzarik ez dagoela iruditzen zait”

likula laburrean eta “*Ander eta Yul*” filmean parte hartu nuen.

— Filme horietan parte hartzeak zer suposatu zuen zuretzat?

— Lehenik eta behin, Madrilera bidea berrieki zidaten, bi filme horiek egin ondoren Paco Rabal, Antonio Banderas, eta Enma Suarezekin “*La blanca paloma*” filmea egiteko deitu ninduten.

— Arrasaten egiten genuen zarzuelengatik zen, hemen izugarriko zarzuela taldea zegoen, eta hor piztu zitzaidan niri aktoretzarako gogoia. Arazo desberdinen-gatik, arazo politikoak tar-tean, talde hura desagertu egin zen. Orduan nik Madri-lera joateko erabakia hartu nuen, baina inongo seguran-tzia barik, zortea probatzera, eta ondo atera zitzaidan. Pe-

# Izagirre, Mondraren entrenatzaile berria

*Durangoko Kulturala entrenatsetik dator*

Hirugarren mailan dabilen Mondrak, entrenatzaile berria dauka joan den astetik, Pello Bengoetxea bere kargutik kanpo utzi zutenetik. Dirudienez, Ondarroako entrenatzaileari, karguan segitu ahal izateko, epe zehatz batetrako puntu kopuru bat eskatu zion zuzendaritzak. Epe hori iritsi eta eskatutako puntu-kopurua ez izatea litzateke entrenatzailea bere kargutik kanpo lagatzeko arrazoi nabariena.

Pello Bengoetxea kanpora bidali eta gero, entrenatzaile berria ere aurkitu dute Mondra futbol taldea zuzentzen dutenek, Jesus Izagirre donostiarra hain zuzen. Izagirrek 56 urte dauzka, eta makina bat denbora darama futbol munduan sartuta. Alavesa, Gernika, Barakaldo, Mirandesa eta Durangoko Kulturala izan dira, besteak



Besoak jaso eta ea aireeratzten diren

beste, donostiar honek zuzendu dituen taldeak.

Joan den igandean, Mondrak Mungiako taldearen aurka irabazi zuen partidua ikusten egon zen Jesus Izagirre, eta dagoeneko eritziak emateko gai dela adierazi behar. Berak zioenez, akatsak

ere ikusi omen zizkion Arrasateko taldeari baina nahiago zuela lehenik jokalarien aurrean adierazi, eta ondorioz, bertuteez galdetu genion. "Igandekoa ez zen oso partidua izan, poliki jokatu zuten eta. Partidua bakarria ikusirik ezin da on-

dorio gehiegirik atera, baina hala ere, talde ona dugula iruditu zitzaidan, futboleko jokatzeko dakiten mutilez osatua. Gainera, teknika aldetik, jokalariek asko gustatu zaizkit. Dударik gabe, gauden tokitik aterako gara, uste dut, sailkapenean gorago egoteko taldea daukagula iruditzen zait eta. Gainera, uste dut Mondrak beste modu batera jokatu behar duela, hirugarren mailak eskatzen duen modura hain zuzen".

Ea bada Jesus Izagirre, Mondraren entrenatzaile berriaren asmo onak gauzatzen diren, eta gai den taldeak orain dituen bi negatiboak alde batera utzi eta positiboak zenbartzeko garaia iristen den. Eskertzekoa litzateke, denboraldi hasierako helburuak betetzea, zaila gerta badaiteke ere.



## ACBko taldea Arrasaten

Centraljet Euskal Air, 80-Caja Bilbao, 96, izan zen Musakolako kiroldegian jokatu zen lagunarteko saskibaloiko partidua azken emaitza. Normaltzat hartu behar da, bilbotarrena lehen mailako taldea bait da, baina esan behar partiduko lehen zatian mondragoetarrek, neurketa, parekatua bihurtu zutela. Amerikarrik ez zuten ekarri bilbotarrek, baina hala ere Musakolan bildu zen jende piloak gozatu ahal izan zuen. Dena dela, poztoko berriak eman ziren bezala, tristetzekoak ere gertatu ziren, Roberto Azkarate, Arrasateko pibota lesionatu egin zen eta.

LURRINDEGIA

**ERTZ**

OPARIETAKO ARTIKULOAK

Ferrerias 28, B. Tfnoa: 79 08 70 Arrasate

**MIKEL**


**Eskaiola, pintura eta kortexozko apainketa**

Tfnoak: 77 12 88 eta 77 12 75  
ARRASATE

# AITOR SAEZ DE VITERI

*Saskibaloian, lagun  
artean gustora*

# PODIUMA



**2**4 urte, 1.86 metro eta 85 kilo, horietxek dira Aitor Saez de Viteri, Centraljet Euskal Air saskibaloia taldeko jokalaria hoberenatarikoaren ezaugarriak. Dударik gabe Arrasateko taldeko liderra da, baina horri ez dio garrantzi handiegirik ematen. *"Aurten tokatu zaidan papera da hori, baina garbi daukat bakarrik ezin dela ezer egin. Nire lana bezain garrantzitsua nire taldekideena da, talde bat garela ez da ahaztu behar"*.

Talde batetik besterako bidaia egin du Aitorrek aurtengo denboraldian, bere bizi guztiko taldea utzi eta Arrasateko taldera etorri. *"Gasteiz taldean dut 7 edo 8 urtez jokatu. Iaz, ikusirik talde hori desagertzeko bidean zegoela, eta Txus Brizuelak Arrasatera etortzeko gonbidapena egin zidanez, bertara etortzeko erabakia hartu nuen. Egia esan, ez naiz inoiz damutu hona etorriaz, gustora nago eta"*.

Ia egunero, entrenatzailearekin batera, Gasteizetik Arrasaterainoko bidaia egin behar izaten du Aitor Saez de Viteri. Hala ere, eguneroko mugitu

behar hori asteburuetan konpentsatu egiten dela dio Aitor Saez de Viteri. *"Larunbatean jokatzera etorri eta kiroldegia jendez gainezka dagoela ikusten duzunean, aste osoko lanak zerbaiterako balio duela konturatzen zara. Kanpora joan, eta hemengo jendea ere animatzera joaten dela ikusteak poz handia ematen du"*.

Aitor gustora dago Arrasaten, baina jokalaria handia izanik, zurrumurru bat baino gehiago zabaldu da, eskaintzaren bat jaso ote duen. *"Momentuz oso gustora nago Arrasaten, hemen egin nahi denarekin ados nagoelako, goiko eta beheko taldeetako jokalariei lagunduz. Ez dakit ziur zer egingo nukeen eskaintzaren bat jasoz gero, bakarrik dakit Euskal Herrietik kanpo ez naizela aterako"*.

Mailaz igotzeko aukerarik ikusten ote duen, eta oso zaila dela dio Aitorrek, aurten ez dela posible izango, baina ondorengo urteetan balitekeela.

## ◆ Rugbyan galdu

Lehen zatian ederki jokatu eta gero, Arrasate Rugby taldeak 13 eta 17 galdu zuen Elorrión bertako taldearen aurka jokaturako partidua. Hasi bezain laster Aiastruik 0 eta 3ko emaitza ezarri zuen arrasatearren alde, Aranegik gerotxoago 0 eta 9 handituko zuen markagailuko alde. Lehen zatia bukatzeko bost minutu falta zirela, elorrioxarrak 6ra hurbildu ziren markagailuan, emaitza horrekin bi taldeak atsedenaldira joan zirelarik. Bigarren zatia ez zen gaizki hasi arrasatearrentzat, Merchan-ek markagailuan diferentzia handiagoa ezarri zuen eta. Hortik aurrera, gauzak okertu egin ziren Arrasateko taldearentzat, gaizki jokatu zuten elorrioxarre irabazten utzi zieten eta.

## ◆ San Andres oso gaizki

Jipoi ederra hartu zuen joan den asteburuan San Andres taldeak San Viator taldearen aurkako partiduan. Izan ere, San Andreskoek 5 eta 1 galdu zuten, kolorerik gabeko partiduan. Hasiara hasieratik, arabarrak jaun eta jabe izan ziren, arrasatearrei ezer egiteko aukera barik lagata. San Andresen gola Mikel Luengok sartu zuen, baina ezertarako ez zuen balio izan. San Andres sailkapeneko azken postuan dago, 4 puntu eta 6 negatiboz. Datorren astean San Ignacio taldea izango da Arrasateko bisitaria.

## ◆ Pilotariak maila onean

Gipuzkoako klubien arteko txapelketaren barruan azkoitiarrak izan ziren Arrasateko pilotarien aurkakoak joan zen astean. Neurketa zaila zen, baina ondo ari izan ziren arrasatearrak eta azkenean jokaturako lau partiduetatik bi irabaztea lortu zuten, txikienea eta seniorrena hain zuzen. Berdinketa hori, arrasatearrentzat ez da txarra, azkoitiarrak sailkapeneko lehen postuan daude eta.

## Uribarri Zeramiketan gauzkazu zain

Uribarri etorbidea 22, etxabehea  
79 81 80 / 77 09 59 ARRASATE

**Axulei eta lurzoruen erakusketa eta salmenta; zure etxerako kalitatea eta aukera.**

# Oui, j'aime bien Brahms

**T**xintxarriaren zarrak iratzartu zuenean, eguraldiaz gogoratu zen lehenbizi Lucien. Bezperako elurteak zurutuak zituen inguruko muinoak, eta elurak oraindik beherago egingo zuelako arriskua handia zen, iragarrien arabera. Ohizko nagikeriarik gabe zutitu eta leihora hurbildu zenean, maluta txuri potolotan gauzatzen zen elurte gozoa ari zen. Atsegina zuen elurra Lucienek, eskiatzaile amorratua baitzen, baina juxtu goiz hartan hiriraino eramango zuen ordubeteko bidaia egin beharrean zegoen eta, behingoz, elur eder hura oztupo bilaka-

tzen zitzaion. Eguneroko dutxa hotzarekin gorputza astindu ondoren, eta bizarra mozteko murrontza gogaikarrian ari zen bitartean, bidaiaz pentsatzen hasi zen. "Kateak hartu beharko dizkiat autoan badaezpada, ezin diat gaurkoan hutsik egin. Bidaia txarra izango duk, ziur, kostaldera inguratu arte behintzat. Biderako musika egokia aukeratu behar...". Orduantxe gogoratu zen Annie-z. Bi egun lehenago ezagutu zuen lagun baten etxean eta, pelikuletan bezala, bien begiradak elkartu zirenean nekez kontrolatu ahal izan zuen zirrarak kilikatu zuen Lucien-en bizkarrezurra. "Ohitura

falta izango duk, izan ere aspaldian...". Eta erdi ahanztzia zeukan ligatzeko ofizio zaharrari ekin zion. Ongi bideratua zeraman elkarrizketa, harik eta Anniek "Aimez-vous Brahms?" galdetu zion arte.

Horregatik ari zen zinten kaxoia arakatzeko, bapatean Brahms iruditu bait zitzaion bidaiarako lagunik aproposena. Laugarren sinfoniaren zinta aurkitu zuenean, ezin izan zuen amorruren kolpea hegaleratu. "Zergatik ez ote diat gehiagotan entzun?" egin zion haserre bere buruari, Annie gogoan. Haatik, elurrak eta Brahmsen abentura punttua zemaitezen bidaiari eta aiduru abiatu zuen Lucien

hirirantz. Oraindik herriko kaleak zeharkatzen ari zela eta elur malutak parabisaren kontra hausten ziren bitartean, sinfoniaren lehen akorde sarkorak zabaldu ziren autoaren barruan. Eta Lucien urtu egin zen bapatean, erabat urtu ere. Eguraldiaren erantsiak sortzen zuen giro barnerakoian, hezurmuineraino iritsi zitzaion Brahms zaharraren musika hura. Handik aurrera, hasieran sufrikario eta geroago abentura izateko zen bidaia, esperientzia betegarri eta ia mistikoa gertatu zitzaion Lucieni.

Annie berrikustean, zinez esan zion: "Oui, je l'aime bien votre vieux Brahms!".

Mikel Irizar



## ARRASATEko UDALA



Udal Plenoak, 1991ko urtarrilaren 18an egindako osoko bilkuran, besteak beste, honako erabakia hartu zuen:

1.- Hasierako onespena ematea "Olandixo Mendialdeko" Poligonoaren Plan Partziala aldatzeko proiektuari, aipatutako Poligonoaren Konpentsazio-Batzordeak sustaturik eta Santiago Ceciaga Urresti Arkitekto Jauna idatzitakoa.

2.- Proiektu hori hilabeteko epeaz jendeaurrera ateratzea, erreklamazioak aurkeztu ahal izan daitezen.

Arrasaten, 1991ko urtarrilaren 24ean.  
ALKATEA

### ESTETIKA ZENTRUA

lurrundegia, opariak, jostailuak

**Z**arraoa


Kanpantorpea 4, Tfnoa: 79 12 19

FELIPE  
MADINA

ZURAK

Zarugalde 40, Arrasate 79 13 78





# ESKULAN IKASTAROA

- **Hirudimentsioko koadroak**
- **Tarazea**
- **Larru lanketa**
- **Etab.**

**Emalea: BEATRIZ ARREGI**

**Egunak: Otsailak: 7, 14, 21, 28**

**Martxoak: 7, 14, 21 (OSTEGUNAK)**

**Ordua: 3etan**

**Tokia: AED Elkartean**

**Matrikula: 300 pta.**

**Lehenbailehen apuntatu AEDn  
edo 79 54 46 tfnora. deitu**



# Hizkuntzaren posibilitateak

**A**urreko astean egindako kontsiderazioak argigarri hartuta, ikus ditzagun euskaltegiaren jardunaren nondik norako nagusienak.

Euskaltegiara datorren ikaslegoa erdaraz eta maila diferenteetan alfabetizaturik dago.

Printzipioz euskaltegiaren iharduna ez da alfabetizazioa bideratzen, baizik eta euskalduntze eta alfabetatzera. Dena den, hizkuntza baten ikasprozesua ezin da hizkuntzaren erabileratik kanpora ulertu (erabilera soziala) eta hein berean, alfabetizazio-kontestutik berezi. Beraz, Euskaltegiak ezin-

bestean hartu behar du alfabetizazioa interesgune bezala, ez lehentasunez, baina bai euskalduntze alfabetatze-prozesuetan duen eraginagatik.

Alfabetizazioari Euskaltegiak damaion tratamenduari dagokionez bi norabide nagusi aipatuko ditugu:

a) Gaitasun mailari dagokionez, oro har alfabetatu funtzionalari dagokion mailan dihardugu, hau da, eguneroko behar eta premiei erantzuteko gaitasuna jorratuz. Halere, Euskalduntze zein Alfabetatze adarretatik EGArako bidea jorratu nahi/ behar dutenekin alfabetatu informazionalaren gaitasunak jorratzen dira. Area-

goko mailari dagokionez, alfabetatu letratuenera, hain zuzen ere, Euskaltegiak bideak urratzen baino ez dela hasi aitortu behar, beti ere lanerako euskararen trebatze arloari loturik.

b) Alfabetizazioaren garabideari dagokionez, Euskaltegiaren egitekoa mugatua da ezinbestean. Ikasleari gaitasun-maila bat eskuratzeko eta horren erabilera zorroztan eta egokitzen laguntzen zaio, baina lortutako alfabetizazio-mailaren garapena norberak erabakitzen duen erabilpen sozialean gauzatzen da.

Dena den, eta mugatua izanik ere, Euskaltegiak betetzen du bere lekua, nahiz

eta askotan desiragarri izan daitekeena baino murriztagoa izan, bai berariz, baita ingurunearen mugengatik ere. Alfabetizazioaren garabidean Euskaltegiak bi ihardun-esparru bultzatzen ditu; alde batetik gaitasunaren garapen pertsonala eskola barruko ihardunean hizkuntza bere testuinguruetan emanez, hau da, gizarteko material errealak, zein fikziozko rol egiantzekoak landuz eta, bestalde, gaitasunaren garapena erabilera-ekin txertatu ekintza osagarriak, zein kanpo ekintzak proposatuz eta burutuz.

*(Arrasateko Udal Euskaltegiak Klarion taldearentzat idatzita)*

**Otsailak 2, larunbata  
Arratsaldeko 6etan  
Amaia antzokian**

**"Gasteiz"  
antzkerki taldeak aurkezten du:**

**BASO  
MIRESGARRIA**



**Umeentzako antzerkia  
Sarrera: 200 pta.**



## Rosario Remon

*La Merced ikastetxeko zuzendarai*

**R**osario Remonen autoa, hobe esan komunitatearen autoa, ondo omen dabil, azken aldian zarata arraroak egiten baditu ere. Mertzedariaren komunitateak bigarren eskukoa erosi zuen, "kolpe handia hartuta zegoen, baina ondo dabil". Auto hozbera denez, ganbarapean edukitzen dute lotan, "gainera nahiko ondo zaintzen dugu, garbia eduki, olio eta ura begiratu...". Ondo zaintzeaz gain, ondo gidatzea gustatzen zaio Rosariori, "egoeraren jabe izatea gustatzen zait, eta behar den abiadura eramatea".



**Construcciones ARRASATE S. L.**

(Lehen Construcciones CODIMA )

Udalpe 5, Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46  
ARRASATE

# Bizikleta gainean

**A**urreko domekan, urtarrilak 27, domekero gertaketan den legez, bizikletari talde polita bildu zen Muxibarren. Bai! badakizu, aurrerantzean nora joan ez dakizula bazaude, Muxibarren domekero goizeko 9etan, lagun-taldea izango duzu inguruko mendietara joateko.

Lehen esan bezala, domeka horretan, bidetik Udalarantz joan ziren, Erguineko malda gogorretik gora, geratu be egin barik eta Udala auzoraino.

Pista hartzen den lekuan itxoin batak besteari eta aurrera, Besaide aldera hartu zuten.



laz Besaidek antolatutako ibilaldian

Eguraldi eskasa egiten zuen, dena lainoturik eta goikaldean 5 gradu inguru. Bizikletan ibiltzeko hotz handia. Besaidera heldu eta iturrian "ur-zurrutada" ederrak hartu zituzten: dena lokaztuta zegoen, goitik behera "txokolate" ederra. Ezagun batzuk ere ikusi zituzten Be-

saide aldean, estatua berria jarri duten lekuan: piperrri be ez zen ikusten.

Besaidetik, betiko moduan, Anboto alderantz jo zuten, Teilamendi azpitik, Ipizteko Arriagaraino.

Ipizteko Arriagan Anbotoa hartu beharrean ezkerrekaldeko bidea hartu zuten

eta kaxatxora joan ziren. Bertan bi gizon hamarretakoak egiteko gertatu beharrekoak gertaketan: barre batzuk egin, txisteak, eurek eroandako janaria amaitu eta Lezeagarantz hatu zuten. Handik Etxaguen auzora abiatu ziren. Auzoko iturri-askan geratu ziren, bizikletak ondo garbitu eta Aramaiorantz joateko prest, dena beherantz lasai-lasai. Arrasatera heldu baino lehen, eguerdiko 12.30etan edo, Belun tabernan bildu ziren, handik eta hemendik etorritako bizikletariak.

Domeketan asperturik eta noiz edo noiz bueltatxo bat egiteko talde jatorra aurkituko duzu Muxibarren, domekero 9etarako joanez gero

K. U.



## ARRASATEko UDALA



Udal Plenoak, 1991ko urtarrilaren 18an egindako osoko bilkuran, besteak beste, honako erabakia hartu zuen:

- 1.- Udal Zerbitzu Teknikoek egindako (Santa Barbara Ingurua) U.6.2., U.6.3. eta U.6.4 Unitateen Urbanizazio Proiektuari hasierako onespina ematea.
- 2.- Proiektu hori hilabeteko epeaz jendeaurrera ateratzea, erreklamazioak aurkeztu ahal izan daitezen.

Arrasaten, 1991ko urtarrilaren 24ean  
ALKATEA

**ELEKTRONIKA  
ARTIKULUEN  
SALMENTA**

J. Carlos Guerra 1, Tfnoa: 79 91 64

**BAZAR**  
TOKI ON

**IBARRA Garajea S.A.**



Garajea  
Automobil-konponketa  
Garabi zerbitzua

**EBRO  
NISSAN**



## Euskeraren Geroa, Geurea

Gure hizkuntzaren geroa sendotu behar dugu. Guraso eta belaunaldi gazteen arteko zubiak eraikiz kultura indartuz, urrats berriak emanez, gure nortasuna aldarrikatuz. Euskera geurea da, Euskal Herri osoarena, bere normalkuntza eta berreskurapena guztion ardura den bezalaxe. Horretantxe dihardugu.

**Euskadiko  
Kutxa**



Aste gazte

"Gazteek jadanik ez dute pertsona heldu eta zaharrekin elkartu nahi. Bakoitza, etxean bezala, bere independentzia eta bere parekoekiko harremanen bila dabil"

Toni Puig.



**Ikastaroak**

• Marrazki eta Pintura ikastaro eta tailerrak. Montterronen. Iraupena: otsailak 6- ekainera arte. Ikastaro-ordutegiak: astegunetan 5etatik 8etara eta larunbategian 10etatik 1etara. Tailerra: astean bi egunetan, arratsaldez. Matrikula: 8.000 pta.

**Eski kanpainak**

• Besaide M. E. : a) asteburuko irteerak (martxoaren 23-24era arte). Formigalen, eski alpino. Prezioak: Besaideko bazkideak 7.400, Arrasaten bizi direnak 8.000, gainontzeak 8.700 (ikasten edo langabezian dauden arrasatearrei klaseen prezioetik %50eko deskontua egingo zaie). b) Aste Santua: Alpes Tignes-Vall D'Isere (martxoak 29-apirilak 6). Frantziako Pirinioa (martxoak 28-Apirilak 1).  
• Diputazioa: "Eskia denontzat": a) Gazteentzako

aste bereziak (15-25 urte birtartekoentzat): otsaila eta martxoan. Prezioa 27.400 pta. b) Guztientzat: asteburu bateko irteerak Cardanchura (eski alpinoa); egun batzuetako irteerak: Saint Lary (alpinoa), Val Thorens (alpinoa).

**Mendiko eski-ikastaroa**

• Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak eta Mendi Federakuntzak antolatuta. Teoriko eta praktikoa. Egunak: otsailak 16-17, 23-24 eta martxoak 2-3. Lekuak: Tena Harana, Hecho-Aragues eta Panticosa. Baldintzak: Mendi Federatu Txartela eta maila minimoa izatea. Prezioa 31.000 pta. Izena emateko epea: otsailaren 11ra arte.

**Gazte antzerkiaren VII erakustaldia**

• Maiatzaren 17tik 26ra, Irunen. Gazteek osaturiko antzeztalde ez profesiona-

lentzat (gehienez, antzeztaleek 25 urtekoak izan behar dute, %10a ezik). Parte hartuko duen talde bakoitzak 70.000 pta. jasoko du "cachet" gisa, gehi garraio gastuak. Sei antzeztalde hautatuko dira.

**Lehiaketak**

• "Idatz eta Mintz" X. Narrazio Lehiaketa. Lanek bizkaieraz idatziak egon behar dute, gehienez, 10 orritakoak. Sariak: 100.000 pta. Lehena eta 30.000 pezeta hiru sari. Lanak aurkezteko epea: martxoak 21.

**Erakusketak**

• ARCO 91 (gaur egungo arte) erakusketa. Otsailaren 6tik 12ra. Madrilen.

**Informazio gehiago:**

Gazte Zerbitzua,  
77 00 65

**ANALISI KLINIKOAK,  
LABORATEGIA**

*I. Laborra Erdozain*

(Lagun Aro, Diputazioa, Prebisa, Asisa, Capisa)  
**GINEKOLOGI KONTSULTA**

Zerkaosteta 17, etxebehea, Tfnoa: 79 20 18  
ARRASATE

**Eslu**

**ileapaindegia**

Tfnoa: 79 37 88  
Arrasate

**ALTUNA**

**Lurrindegia  
bisutegia  
drogeria**

Maalako Errabala  
Tfnoa: 79 14 23

## ETXEBIZITZAK

- **Neska behar da etxebizitza konpartitzeko.** Deitu astelehenetik ostiralera bitartean gaueko 9.00etatik aurrera 79 54 61 tfnora.
- **Donostian etxebizitza konpartitzeko txokorik baldin baduzu deitu 79 24 52 tfnora.** Joseba
- **Arretxabaletan erdialdean etxebizitza salgai.** Tfnoa: 79 85 45.
- **45m<sup>2</sup>ko lokala saltzen da oso merke.** Edozein motatako negozioa jartzeko. Interesatuak dei egin 94 - 682 04 83 tfnora. Astearte-larunbata bitartean 9etatik 1era.
- **Logela alokatzen da bi oherekin .** Tfnoa: 79 07 73.
- **Etxebizitza salgai Zarugalde kalean.** Garajea eta ganbara. Guztiz berria. Tfnoak: 77 09 33 eta 79 04 69.
- **Aramaion etxebizitza salgai.** Erdi amueblatua, 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, egongela-jantokia, ganbara, banakako kalafakzioa eta garajea. Tfnoak: 945 - 45 50 75 eta 44 52 04
- **Errenteria aldean lan egin behar dut;** pisuren baten logela librerik ezagutuz gero, deitu 79 24 66 tfnora. Kepa.
- **Arrasaten erdialdean etxebizitza salgai.** 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, egongela eta ganbara. Garajea aukeran. Tfno. 79 95 46, gaueko 8etatik 10ak arte.

## LANA

- **OHOKo klase partikularrak ematen dira** euskaraz zein erdaraz. Tfnoa.: 79 26 19 Itziar.
- **Emakumea umeak zaintzeko prest.** Tfnoa.: 79 97 58.

- **Emakumea afariak edo bazkariak zerbitzeko prest .** Deitu 79 78 65 tfnora
- **Neska behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko.** Interesatuak dei egin 79 29 05 edo 79 77 57 tfnoetara.
- **Fisika klaseak ematen dira.** Goizean eta arratsaldean. Tfnoa: 77 13 95
- **Erretegi batean astebukaeretan lana egiteko bi emakume behar dira.** Tfnoa: 76 22 68
- **Idazmakinez eta ordenadorez pasatzen dira lanak.** Tfnoa: 79 62 89
- **Andra batek etxeko lanak egingo lituzke orduka.** Tfnoa: 79 15 56
- **Emakumea behar da Gastelzen etxeko lanak eta umea zaintzeko.** Tfnoa: (945) 23 29 74 (gauez)
- **Kimika klaseak hartuko nituzke (1. Injinerutza)** Tfnoa: 80 12 54

## SALEROSKETAK


- **Fiat 1 turbo salgai.** Tfnoa: 79 69 98.
- **Telefunken Mod. MP143 14'ko telebista salgai.** ETBko programa batean irabazitakoa, kaxatik ateratzeko. Interesatuak deitu 79 91 16 tfnora.
- **Adi mendizale!**
  - Kastinger goi-mendiko plastikozko botak, barreneko botinaz 40-41 zenb.
  - Kamet larruzko goi-mendiko botak 43 zenb.
  - Camp markako kranpoiak eta pioleta salgai. Nahiko merketxo. Interesatuak deitu 79 92 92 tfnora. Juan Carlos.
- **Orbea Mustang mendiko bizikleta,** kalapiesak, argia, llanta eta pinioi berriak. Egoera oso onean 40.000 pta. Gutxi erabilia. Tfnoa: 79 54 65 egunero

gauez. Garikoitzez galdetu, 9.00etatik 11.00etara.

- **Karro denda berria salgai.** Tfnoa: 799055 (94) 681 75 06.
- **Sukaldeko mahaia eta aulkia erosiko nituzke.** Tfnoa: 79 59 72.
- **Ebro L-35 kamioneta toldo eta guzti salgai.** VI-H. 190.000 km. Tfnoa: 945 - 44 51 12. Aramaio.
- **Opel Kadet-erako portaeskia salgai.** Tfnoa: 79 45 39. Josefe.
- **Orbea bizikleta karreretakoa salgai.** 54 neurrikoa. 79 90 03.
- **Autorako erremolkea salgai.** Neurriak 1,10x1m. Tfnoa: 79 50 96.

## DENETARIK

- **Bi gazte larunbat goizetan buzoneo edo halakoren bat egiteko prest.** Harremanetarako dei egin 79 55 35 tfnora. Arratsaldeko 7etatik aurrera. Mikel
- **Bai, bai zuel, Jo ta fuegokoei. Non zaudete?** Eta amonari zer gertatzen zaio? Ez dakizue idazten ala zer gertatzen da? Gorantziak Baionako bi sorginei. Urte berri-on!!! Guztioi, Jo ta fuego.
- **Non, non dago Jo ta fuego?** Hor amonaren gonapean hotz dagoela eta irtetzeko beldurrez. Baina, beno, ordua da berriz ere Jo ta fuego martxan jartzeko ala ez? Animatu idazten Jo ta fuego.
- **Kalxo Arrasate!** Gaur Arrasate Press ailegatu zaigu. Beti bezala askotan pentsatzen dugu zuetaz. Zer moduz euskarazko klaseak, Karmel, Isi eta Esteban? Gora euskara? Sharryn eta Geoff.
- **Gaztea buzoneaketa egiteko prest.** Interesatuak dei egin 79 80 55 telefonora eguerdiko 2.30etatik 5etara eta gaueko 7.30etatik aurrera.



**ARRASATEN  
HILDAKOAK**

**Mondragon Bidaburu Manuel,  
Urtarrilaren 27an, 59 urte.**

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK  
DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA  
BIDALI GURE BULEGOETARA**

TESTUA: .....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

**Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE**

**Tfnoa: 77 08 15**

# Zer nahiago?

## Edurne Erauskin S. F. Xabier ikastolako zuzendaria



- **Eskola publikoa ala pribatua?** Eskola publikoa.
- **Selektibitatea bai, ala selektibitatea ez?** Printzipioz, selektibitatea ez, eskolarizazioan zehar ziurtatu behar da irakaskuntza maila.
- **Lanean zortzi ordu jarraian ala lau orduko bi txanda?** Lau orduko bi txanda nahiago.
- **Zientziak ala letrak?** Letrak.
- **Egunkaria ala telebista?** Egunkaria, oso telebista gutxi ikusten dut.
- **Antzerkia ala zinema?** Zinema gustokoago dut.
- **Zinta ala diskoa?** Kalitatez, diskoa, baina erosotasunari begiratuz gero, zinta.
- **Bazkaldu ala afaldu?** Afaldu, lasaiago egiten dut.
- **Oporretan, pentsioetara ala kanpingnetara?** Kanpingnetan hobeto.
- **Nobela ala poesia?** Nobela, sarritan poesia ulertzeko ez naiz gai izaten.
- **Jertseak, erositakoak ala egindakoak?** Nahiago egindakoak, baina normalean erositakoak erabiltzen ditut.
- **ETB1 ala ETB2?** Oso telebista gutxi ikusten dut, baina ikustekotan ETB1.
- **Entzutea ala hitz egitea?** Egoeraren arabera, baina gehienetan entzutea.
- **Taberna normala ala pub-a?** Gutxitan ibiltzen naiz tabernetan, baina nabileanean taberna normaletan.
- **Haratuzteak ala Maritxu Kajoi?** Haratuzteak, Maritxu Kajoiko festan alkohola bihurtzen da protagonista.
- **Gona ala frakak?** Frakak erabiltzen ditut, baina gonak ere gustatzen zaizkit.
- **“La guerra de las galaxias” ala “Ben-Hur”?** “La guerra de las galaxias” aukeratuko nuke, bestea pare bat aldiz ikusi dut eta.
- **Lotarako, pijama ala kamisoi?** Pijama.
- **Rock-a ala musika klasikoa?** Biak gustatzen zaizkit, baina azkenaldian klasikoa gehiago entzuten dut.

# Igarkizunak

## Letrak eta zenbakiak

1. Zuzen zuzena du makilatxo, eta buruan dauka hizki honek eltxoa.
2. Printze eta erregina artean bilatu eta aurkituko nauzu, gezurrak ez nauka bat ere egiak bat behintzat badu.
3. Liburutegian behin ikusi dut telebistan bi aldiz, horman ez dago eta paretean bai, aurkituko nauzu tomatetan eta ingelesan artean maiz.
4. Zuzen begiratuta nahiz hankaz gora, jarraitzen du antzera hiru gorabehera.
5. Formaz da aulkia zorioneko hizkia! Hegoaldean ez eta Iparraldean bai, garai batean izan zen euskaldunon eztabaida-gai.
6. Eratzun berezia ez da urrezkoa baizik tintazkoa. Hutsa balio du ezkerrean, milioiak eskuinean.
7. Fakturan beharrezkoa futboleko oinarritzkoa badago alferren bihotzean baita ere hostoen firfiran.

Erantzunak: 1=1, 2=1, 3=1, 4=6 eta 9, 5=H, 6=Zero, 7=F

comercial  
san juan

Garibai 12,  
Tfnoa: 79 13 05

hikein  
ENMARKETAZIOA

Zerkaosteta 4,  
Tfnoa: 79 13 84



**KILI-KOLO**  
Ferrerias 21  
Tfnoa. 797006  
ARRASATE





Santa Agedako korua, 1942.

**G**erraosteko gose urteak ziren, baina Santa Agedako koruen tradizioa ezin eten eta argazkiko hauek,

Udaletxean derrigorrezko baimena eskatu eta gero, irtetea erabaki zuten. Santa Ageda bezperan, otsailak 4, Portaloitik irten ziren goizeko zortzietan. Baserriz-baserrri kantatuz, Kanpanzarreraino egin zuten. Goi-menditik zehar Angiozarrera joan eta, handik Bergarako Labegaraietara.

Han taberna txiki batean bazkaldu eta Mondragoerantz. Zigarrolako base-rrietan abestu eta gero, ilunkeran Bueno tabernan berakatz-zopa jan eta gauera arte jo eta ke ari izan ziren kantatzen.

Garai hartan dirurik apenas jaso zuten -Angiozarko baserri batean abestu eta erreztatu eragin ostean pezeta bat eman zieten-, txorizoa, arraultzak eta jatekoak, berriz, ugari. Bildutakoarekin bada, biharamunean Antonio Bizkaireren tabernan elkartu ziren (gaur Arca de Noe dagoen lekuan) bazkaltzeko. Hantxe atera zen argazki hau.

Zutik, ezkerretik hasita, **Jose Ramon Bolinaga Txori, Esteban Pagoaga, Luis Bengoa, Angel Ezkurra Galarra aita, Jesus Berezi-bar eta Alejandro Zubillaga. Jarrita, Maurizio Etxaburu, Angel Ezkurra Galarra semea** (bezperan ez zen koruarekin irten), **Joseba Bengoa eta Pedro Vega.**

Bazkaldutakoan Maneren *Caserio* tabernan kafea hartu, beste bat Gautxorin eta aita-semea ezik, beste guztiek Santa Agedara egin zuten, jaietara. Tradizioaz bete ondoren, parranda ordua zen.

**PUB  
HAIZEA**




**ENARA**   
OSAGIRRIAK

Maalako Errabala 21  
20500 Arrasate  
Tfnoa: 79 62 32

# SAN ANDRES ESKOLA PUBLIKOA

Barkaltzera joan eta galdeku  
zuten:

- Zer nahi duzu Neltane?
- Tortila bat auzerria
- Nola koka? Frantzeza aita...
- Beldun zait, ez bait duot  
hitz egun behar.












**MATERIA**

- Karlulina
- Antifazak
- Eskarlatu fiamosterrek
- Urria
- Goma

**NOIA EGIN**

- Karlulina tolesta ezazu eta bertan marraztu ezazu antifazaren erdia.
- Papera tolestatu eta edukirik moztu ezazu siluetara.
- Zabaldu ezazu ondoren Karlulina eta sinu eta osoa edukiko duzu.
- Antifaza apaindu ezazu fiamosterretan.
- Askentz goma jarri.



<p>Mercedes, ez moztu. Oso garbia naiz da.</p> <p>Beno, beno</p> 	<p>Mercedes, ez hitz egin ezin gara. Es hil.</p> 		
<p>Bahin batean gizon batek bere laguna, zuhaitz baten gona behera zuen.</p>	<p>Gizonak ez zuen konarik egun.</p>	<p>Honen onberrak jasaten ari dira.</p>	<p>Hona isurritza heldu da.</p>
<p>PAPERRA</p> 			
<p>Lantegietan paperra egiten dute.</p>	<p>Ohalez egindako gausak eramatean dituzte.</p>	<p>Dendetara doa.</p>	<p>Kaxak ustentzen...</p>

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI BADUZU  
EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....  
HELBIDEA.....  
HERRIA.....

Azoka kalea 1, -ARRASATE- Tfnoa: 77 08 15



**77 08 15**

## URTE BERRIKO LEHEN ESKUTITZA

Kaixo, egunon ta urte berri:

Egixa esanda, arrazoi askorik etxauk hiri kartak bialtzen hasteko, nobixia ez haiz behintzat, eta hortik aurrera etxuat gogo larregi izaten boligrafoa hartuta halakotan hasteko, baina kasu honetan loguretuta egon arren ta berandu izanda be, hiri zeozer zor izatearen moduko zentzaziñua etarateko edo hasi nauk idazten.

Zertarako ibili zer moduz hago eta holakotan? Harira fanda, ahots tristia dakok telefonoz bestaldean, eta aurreko baten be, bakarrik geratu hintzanean PERNIXIOrengana fateko, gaizki sentitu nintzuan (ez diarreiagatik bakarrik, izpiritualki ere, esan nahi bait da). Beraz, besterik ezean eta hemendik agertzen haizen bitartean (laster, hi), hor dakok nire azkenengo obra (idazlana, ez etxea):

## NESKATXA BATI

Gorpuztu gabeko tximeleta lez  
hire ametsaren hegada

Irentsi gabeko kafesne lez  
geroko unearen horbela

Goroldio lehorrez enborrak betez  
hire gogoaren ezpata

Joan doa, gaua, ihes.

Dumper Limard

Zer? Entenditten da ezer? Badakik, hiria, malenkonia, kontatuko dostat zela (eta zeineri) eta noiz idatzia den (barre egin daigun). Baina konturatzen nauk ezin xakola holako bat bota neskatxa bati hola, besterik gabe, eta, ezagunago egingo xaken beste hau gaineratu ixok:

## NESKATXA BATI (2)

Hik ez didan onik ekarri  
hik ez didan gaitza eta negarra besterik ekarri  
ta hire sexua  
hik ez didan onik ekarri

Dunper Limard

Oiñ gutxiago entenditten, ezta?

Bueno, harira itzuliz, aber noizko agertzen haizen hemendik. Bitartean,

Kanta zak euskalduna  
kanta zak hire herria

Pantxoa eta Peio

Ondo ibili, miren pili.

Dunper Limard

**ITURRIOTZ taberna**

**GIRORIK**

**JATORRENA !!**

Tfnoa:79 16 04



**J. M. Heriz**

**Konpromezurik gabeko  
aurrekontuak**

Otalora Lizentziatua. Arrasate

## 4 ASTELEHENA

- 18.30 **Teletestua**. Era guztietako iragarki eta oharrak.
- 19.30 **Bapirulauke**, umeen saioa, aste honetan San Frantzisko Xabier ikastolan grabatutakoa.
- 20.00 **Berriak**, asteburuan Arrasaten gertatutako guztiaren berri, Koldo Rodriguezen eskutik.
- 20.20 **Mondrasport**, ATBren kirol-saioa Beñardo Kortabarriak zuzenduta.
- 20.35 **Saltsa-Maltsan**, Jaione Olabek perretxiko pateak prestatuko du.
- 20.45 **Erreportaia**: Pedro Bernardo Villarreal de Berriz jauntxo eta injineru mondragoetarraren bizitza.
- 21.00 **Kontzertua**: Goikobalu abesbatzak abenduaren 29an Mondragoeko parrokiaren Gasteizko Jesus Guridi Musika Eskolako ikasleen orkestrarekin batera eman zuten kontzertuaren zati ederra.




Berriak. (Errepikaldia).

## 7 OSTEGUNA

- 11.00 **Teletestua**.
- 12.00 **Berriak**(bezperakoa).
- 12.20 **Zenbat buru, hainbat aburu**(bezperakoa)

## 5 ASTEARTEA

- 11.00 **Teletestua**
- 12.00 **Bapirulauke**(bezperakoa)
- 12.30 **Berriak**(bezperakoa)
- 12.50 **Mondrasport**(bezperakoa)
- 13.05 **Saltsa-Maltsan**(bezperakoa)
- 13.15 **Bapirulauke**(errepikaldia)
- 13.45 **Erreportaia**(bezperakoa)



14.00 **Kontzertua** (bezperakoa)

## 8 OSTIRALA

- 19.00 **Teletestua**
- 20.00 **Berriak**, ATBren albistegia, Begoña Garaik aurkeztua.
- 20.20 **Erretratoa**, J. R. Elortzak zuzentzen duen elkarrizketa. Gonbidatua: Luis Sagasta "Mane",



musikazale ezaguna. Los Jaguars eta Gaurko musika taldeko organojolea.

20.50 **Musikantoi**, Mikel, Pepe, Asier eta Patxi Monteroren rock saioa.

**Berriak**(errepikaldia)

## 6 ASTEAZKENA

- 19.00 **Teletestua**.
- 20.00 **Berriak**, Arrasateko aktualitatea, Koldo Rodriguezek aurkeztua.
- 20.20 **Zenbat buru, hainbat aburu** mahaingurua, Jose Mari Velez de Mendizabalek zuzenduta. Gaia: Arrasateko jubilatua.



**Berriak**(errepikaldia)

## 9 LARUNBATA

- 11.00 **Teletestua**
- 12.00 **Berriak**(bezperakoa)
- 12.20 **Erretratoa**(bezperakoa)
- 12.50 **Musikantoi**(bezperakoa).



## SUKALDIAK

Zure etxebizitzarako apainketa-proiektuak egiten ditugu

# eya

Sukalde eta bainugelako altzaritan espezializatutako denda

Ignazio Zuloaga 4, Tfnoa: 79 05 07

# Telebegi

Sai berri honetarako idaztea eskatu zidan lehengobatean Joxek, aldizkari honen zuzendariak. Nire "ikuspegia" azaldu behar omen nuen Telebista mundu honi buruz, barrutik ikusten duenaren ikuspegia, hain zuzen. Eta honetako zerbait erantzun nion: "Ba... oso barrutik izan biheko jok, ATBn bertan ikusten dotenaz aparte, apenas ikusten juat telebistatik eta...". Ez pentsatu, hala ere, horrek libratu ninduenik. Gure Zuzendari Jaun Prestuak beti ikusten du aurrera egiteko bideren bat, beste askok atzera egingo genukeen une berean. "Ez, ez, seguru egon hadi jendea gustauko jakola Telebista bertakoen eritzia zain dan jakitea" erantzun zidan, gutxi gorabehera. Bada, asmo horrekin ari naiz idazten. Zuk zeuk epaitu behar, irakurle.

Lehengoa egunean, "Bapirulauke" saioa ikusi nuen gure kontrol gelan, asteleheneko "Berriak" saioa albistaen paperak errepasatzen nituen bitartean. Aulkibatean eserita J. R. Eiorza gure lankidearen alaba txikia zegoen. Gu hain ari ginen, denak hizketan eta zeregin zaralatsu samarretan, edonor des-pistatzeko modukoak eta neskati-la, zirkinik egin gabe, telebistari begira. Ez zegoen beste inor berarentzat: Bapirulauken agertzen zirenak baino ez.

Horrek pentsarazi zidan zenbateko indarra eta eragina izan dezakeen gurea bezalako medioak ume eta ez hain ume direnengan. Eta gerra hotsak nagusi diren honetan, nahiagoko nuke nik umeek "Bapirulauke" ikusiko balute, eta ez "Telediarria".


*Koldo Rodriguez.*



**H**ogeitahiru urte besterik ez izan arren, sukaldaritzaz asko daki **Jaione Olabe** aretxabaletarrak. Aurrerantzean, berak egingo du *Saltsa-maltsan* astelehenetako saioa, **Juanita Zabalok** ekindako lanari segida emanaz. Jaione Almenen ikasitakoa da eta Leioako Unibertsitatean ikasi zuen sukaldaritzaz. Bukatu zuenetik, Gasteizko *Estadio* jatetxean egin izan du lana eta baita Arrasateko Eskualde Ospitalean ere. Urrian Auzo Lagunen sartu zen eta bertan egiten ditu Saltsa-maltsaren grabazioak. Arrasate Press eta ATBren langileek joan den astean Jaionek egindako euskal pastela probatu zuten eta gozoa benetan.

## Neguko Joko

Olinpikoak inguruan jokatuko direla eta, Saboia inguruko Chambery herrian otsailaren 12an egiteko ziren mundu mailako herri telebistei buruzko Nazioarteko ihardunaldiak atzeratu egin dira udazkenara arte. Mondragoeko Alkatea eta ATBren zuzendaria gonbidatuta zeuden -eta daude- Arrasate Telebistaren esperientziaren berri ematera. Atzerapenaren berria aste honetan jaso da.



# Telebelarri

◆ "Ni kontzejal sartu nintzenezan bi bando zeuden: separatistak eta ofizialistak. Gu lehenetarioak ginen, zenbait gudari finentzat kolaborazionistak izan arren".

(Joseba Arregi "Kataide" k *Erretratoa* saioan.)

◆ "Frankismoaren amaieran utopia bat planteatu genuen: Maixor etxean alderdi eta pertsona guztientzat euskaraz funtzionatuko zuen bilera eta topalekua".


(Joseba Arregi "Kataide" k. *Erretratoa* saioan.)



## ARIES

*Martxoaren 21etik  
Apirilaren 20ra*

Aldamenekoengana joko duzu haiena etxekoa baino dibertigarriagoa izango delakoan eta ez duzu asko behar izango benetan gustoko ez dena rutina bilakatzen dela ohartzeko.



## LEO

*Uztailaren 23tik  
Abuztuaren 23ra*

Benetan gustora sentituko zara, Leo, leku guztietan. Jendeak, atsegina izaten ere badakiela konturatuko zara eta denei esker onak eman nahian ibiliko.



## SAGITARIUS

*Azaroaren 23tik  
Abenduaren 21era*

Maitasunean sentimenturik sakonenak ezagutu ahal izango dituzu Venusen egoera dela medio. Pasioa zoragarria izan liteke, Sagitario, baina gehiegikerietan ibiltzeak beti ere kalteak ekar ditzake.



## TAURUS

*Apirilaren 21etik  
Maiatzaren 20ra*

Sentibera egongo zara datozen egunetan Taurus eta zeurekoi jokatze joera izango duzu inguru guztia kontrolatu nahi horrekin. Saia zaitez egoeren zergatia arrazoitzen, garbiago ikusiko bait duzu bizimodua eta ez zara hain minduta sentituko.



## VIRGO

*Abuztuaren 24etik  
Irailaren 23ra*

Bizimoduan arkakosua bezala ibiltzean datza zure gizalegea, horregatik zaitu hain gogoko jendeak. Halere, noizbehinka ohartzen zara hori ez dela ibiltzeko modua eta hortzak erakusten dituzu.



## CAPRICORN

*Abenduaren 22tik  
Urtarrilaren 20ra*

Itsu ari zara jokatzen portaera horri eutsi nahian. Hormak apurtu nahi izatea zilegi izaten da inoren kalterako ez denean; beraz, bi aldiz pentsa ezazu hainbeste arduratzen zaituen arazo hori edota ideiak argituko dizun norbaitengana jo ezazu aholku eske.



## GEMINI

*Maiatzaren 21etik  
Ekainaren 20ra*

Hitz egitea da dudarik gabe daukazun bertuterik nabarmenena Gemini, baina, oraingoan berbak ahuldu beharrean izango zara, Marteren egoerak erasokor egonazaziko dizulako. Ohi baino ariketa fisiko gogorragoa egizu energia negatibo horiek erretzeko.



## LIBRA

*Irailaren 24etik  
Urriaren 23ra*

Primeran izango zara edozein eratako harremanetarako Libra, berdin izango zaizu urlia halako edo bestelako izakerakoa den, edozein burusoili orrazia saltzeko gai izango bait zara.



## AQUARIUS

*Urtarrilaren 21etik  
Otsailaren 19ra*

Ahulezia edota pereza direla medio alde batera lagata zeneuzkan zeregin horiek gauzatzeko egoera ezin hobean izango zara datozen egunetan, energiaz gainezka eta burua argi-argi izango duzulako Acuario. Maitasunean ere odolbero egongo zara.



## CANCER

*Ekainaren 22tik  
Uztailaren 22ra*


Tauroek bezala, zuek ere sentibera egongo zarete datozen egunetan, baina, sentiberatasun hori etxe barruan nabarituko duzue, aintzat hartuak ez zaretelako sentituko.



## SCORPIO

*Urriaren 24etik  
Azaroaren 22ra*


Zeure gizalegeari eusten diozu beti eta oraingoan baliteke norbait oker zaudela aditzera ematea arrazoi osoarekin; ez zaitez hain egoskorra izan eta une labur batez izango ez bada ere, entzuizu bestearen esana.



## PISCIS

*Otsailaren 20tik  
Martxoaren 20ra*

Libra zeinukoentzat esandako egoera bera Piscientzat ere salbuespen batekin, zuek ez zarete Zodiakoko merkataririk onenak eta salmentan ez baino beste esparruren batean erabili beharko duzue gaitasun hori.



# HIRU S. A. MEKANIZAZIOAK

- *Doitasunezko mekanizazio plano eta langileen arabera*
- *Fresatzeko makinak*
- *Zenbakizko kontrola*
- *Mekanizazio-zentroak*
- *Tornuak*
- *Artezko makinak, etab.*

Zaldispe kalea 10, ARRASATE  
Tfnoak: 79 67 80 / 79 05 61  
Posta kutxa 95. Telefax: 79 80 97

Goiaín Industrial Poligonoa. 24 Apartatua  
Tfnoa: 945; 45 54 28 / 45 54 54 / 45 54 53  
Telefax: 45 54 74, 01170 LEGUTIO

# GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ZURE ZERBITZURAKO



Gipuzkoako Foru Aldundia

# MUGARRI

## Berri-berriak



**Escort**



**Orion**



**Ford modelo berriak**